


Fiskalizazio Txostena

Informe de Fiscalización



**Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua
Zuzenbide Pribatuko Ente Publikoa**

**Ente Público de Derecho Privado
Osakidetza-Servicio Vasco de Salud**

2010





AURKIBIDEA/ÍNDICE

LABURDURAK.....	5
I. SARRERA.....	7
II. IRITZIA.....	8
II.1 OSAKIDETZA.....	8
II.1.1 Legea betetzeari buruzko iritzia.....	8
II.1.2 Urteko kontuei buruzko iritzia.....	9
II.2 OSATEK, S.A.....	10
II.2.1 Legea betetzeari buruzko iritzia.....	10
II.2.2 Urteko kontuei buruzko iritzia.....	10
III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK.....	11
III.1 Aurrekontuak eta Kontabilitatea.....	11
III.2 Kontratazioa.....	11
III.2.1 Aurreko ekitaldietan esleitutako espedienteak.....	11
III.2.2 2010ean esleitutako espedienteak.....	12
III.3 Langileria gastuak.....	13
III.4 Osatek, S.A.....	14
IV. URTEKO KONTUAK.....	15
IV.1 Osakidetzaren Kontuak.....	15
IV.2 OSATEK, S.A.ren kontuak.....	21
ALEGAZIOAK.....	27
ABREVIATURAS.....	71
I. INTRODUCCIÓN.....	73
II. OPINIÓN.....	74
II.1 OSAKIDETZA.....	74



II.1.1 Opinión sobre el cumplimiento de la legalidad.....	74
II.1.2 Opinión sobre las cuentas anuales	75
II.2 OSATEK, S.A.....	76
II.2.1 Opinión sobre el cumplimiento de la legalidad	76
II.2.2 Opinión sobre las cuentas anuales	76
III. CONSIDERACIONES SOBRE LOS SISTEMAS DE CONTROL INTERNO Y PROCEDIMIENTOS DE GESTIÓN	77
III.1 Presupuestos y Contabilidad.....	77
III.2 Contratación.....	77
III.2.1 Expedientes adjudicados en ejercicios anteriores	77
III.2.2 Expedientes adjudicados en 2010	78
III.3 Gastos de personal	79
III.4 Osatek, S.A.....	80
IV. CUENTAS ANUALES	82
IV.1 Cuentas de Osakidetza.....	82
IV.2 Cuentas de Osatek, S.A.	88
ANEXOS	93
A.1 Naturaleza y normativa aplicable	93
A.2 Bases de presentación.....	95
A.3 Provisiones para pensiones	96
A.4 Gastos de personal	97
A.5 Contratación e Inversiones	97
A.6 Osatek, S.A.....	103
ALEGACIONES	107

Vitoria-Gasteiz, 2013ko irailaren 25a

Vitoria-Gasteiz, de 25 de septiembre de 2013



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

LABURDURAK

EAE	Euskal Autonomia Erkidegoa
OZZM	Osasun Zerbitzuen Zentro Multikanala.
130/1999 D	130/1999 Dekretua, otsailaren 23koa, Zuzenbide Pribatuko Erakunde Publiko eta Sozietate Publikoen zuzendarien estatutu pertsonala arautzen duena.
DOUE	Europar Batasuneko Aldizkari Ofiziala
1/1994 LD	1/1994 Legegintzako Dekretua, irailaren 27koa, Euskadiko aurrekontu-araubidearen arloan indarrean diren lege-xedapenen testu bategina onartzen duena.
2/2007 LD	2/2007 Legegintzako Dekretua, azaroaren 6koa, Euskadiko Ondareari buruzko Legearen Testu Bategina onartzeko dena.
SPKL	30/2007 Legea, urriaren 30ekoa, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzkoa.
EASL	8/1997 Legea, ekainaren 26koa, Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzkoa.
EEP	Enpleguaren Eskaintza Publikoa
APKLEO	Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra, urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretu bidez onetsitakoa.
IKT	Informazio eta Teknologietako Teknologiak.
EAATB	Euskadiko Aurrekontu Araubideari buruzko Testu Bategina
TVCP/HKEE	Herri Kontuen Euskal Epaitegia
EAB	Enpresen Aldi baterako Batura.





I. SARRERA

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak (HKEE), bera arautzen duen 1/1988 Legean eta Lanerako Urteko Programan ezarritakoari jarraiki, Osakidetza- Euskal Osasun Zerbitzua Zuzenbide Pribatuko Erakunde Publikoaren (aurrerantzean, Osakidetza) urteko kontuen fiskalizazio txostena mamitu du, 2010eko ekitaldiari buruzkoa.

Fiskalizazioak honako alderdi hauek besarkatzen ditu:

- Legezkoak: ekonomia-finantza jardura arautzen duen arautegia bete izana; horretarako, Osakidetzan kontratazio adierazgarrienak eta Artekari Zerbitzuak ezargarria den legeria betetzeari buruz mamitutako txostenak aztertu ditugu.
- Kontularitzakoak: Kontuak ezargarriak diren kontularitzako printzipioen arabera mamitu den aztertuko dugu.
- Lanaren zabalak ez du gastuaren eraginkortasun eta zuhurtasunari buruzko azterlanik besarkatzen. Nolanahi ere, azaleratutako hutsak "Kudeaketaren alderdiak eta Gomendioak" idazpuruan xehetasunez jasoko ditugu.

Eta Osatek, S.A. ere fiskalizatu dugu, Osakidetzak kapital sozialaren % 100eko jabetza duen sozietate publikoa.

Gainera, kanpo enpresek egindako Osakidetza eta Osatek, S.A. ren urteko kontuen eta aurrekontu eta legezketasuna betetzen dutelako auditoria txostenak euskarritzen dituzten lan paperak ere aztertu ditugu.

Fiskalizazio lanak sektore publikoari ezargarriak zaizkion printzipio eta arauen arabera garatu dira eta horretarako,

Osakidetza osasun gaietan eskumena duen Administrazio Orokorreko Sailari atxikitua dago; berezko lege-nortasuna du eta jarduteko gaitasun osoa du osasun zerbitzuak emateko, bere baitako diren zerbitzu-erakunde publikoen bitartez.

2010eko ekitaldian zerbitzu antolamendu berri bat sortu da, Bizkaiko osasun mentalaren sarea izenekoa eta sare honek lurralde horretan diren osasun mentaleko lau zentroak besarkatzen ditu. Honenbestez, 2010ean Osakidetza osatzen duten zerbitzu antolamenduen kopurua 30etik 27ra murriztu da, xehapen honen arabera: Erakunde Zentrala, Larrialdiak, Transfusio eta Giza-ehunen Euskal Zentroa, hiru osasun mentaleko zentro, hamalau ospitale eta oinarrizko osasun-laguntzako zazpi eskualde. Osatek, S.A. enpresak zerbitzu antolamendu izaera du.



II. IRITZIA

II.1 OSAKIDETZA

II.1.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

Kontratazioa (ikus A.5)

1. Aurreikusitako kontratuaren iraupenak legeak baimentzen duen gehiengo epea gainditzen du 13,8 milioi euroren zenbatekoan esleitutako 6 zerbitzu espedientetan (SPKLren 23 eta 279.1 art.) (85, 86, 87, 89, 90 eta 92 zk. esp.).
2. Luzapenak pleguetan legez aurreikusitako denbora epea gainditu du edo kontratuaren iraupen aldia iraungia dela gauzatu da, guztira 44,3 milioi euroan esleitutako 9 hornidura espedienteetan eta zerbitzuetako 7tan (27, 28, 30, 31, 33, 35, 38, 39, 41, 44, 45, 49, 51, 52, 54 eta 55 zk. esp.).
3. 7,2 milioi euroren zenbatekoan esleitu ziren hornidurako 8 espedientetan eta zerbitzuetako 7 espedientetan eskusibotasunagatik prozedura negoziatua erabiltzeko bide ematen duten suposamenduak existitzen direnik ez da egiaztatu (SPKLren 154. d, 157.c eta 158.b eta c art.) (59, 60, 64, 73, 74, 78, 81, 82, 85, 86, 87, 91, 94, 102 eta 103 zk. esp.).
4. Esleipena ez da behar hainbat justifikatu edo ez dira pleguetan aurreikusitako irizpideak baliatu edo horietan aurreikusitakoaz besteko haztapena eman zaie, guztira 38,3 milioi euroren zenbatekoan esleitutako obra espediente batean, hornidurako 8tan, zerbitzuetako 3tan eta misto batean (SPKLren 134 eta 135 art.) (57, 65, 67, 68, 71, 72, 77, 79, 83, 84, 89, 92 eta 93 zk. esp.).
5. Guztira 8,3 milioi euroan esleitutako hornidurako 6 espedientetan eta zerbitzuetako 1ean, hasierako aurrekontua % 30etik gorako ehunekoan gehiarazten duten aldaketak egin dira; honek SPKLn jasotako lehia printzipioak urratzen ditu (SPKLren 23.2 art.) (27, 29, 30, 33, 36, 37 eta 55 zk. esp.).
6. 106.207 euroren balioa duen sorta baten herena lehiatzaile bati esleitu zaio eta horren produktuak ez ditu pleguetan ezarritako espezifikazio teknikoak betetzen, guztira 522.323 euroan esleitutako hemodialisi-materiala hornitzeko espediente batean (SPKLren 144. art.) (76 zk. esp.).
7. Osakidetzako zentroek kontratu txiki modura izapidetu ditu produktu edo ondasun higigarrien erosketak, zeinetan kontratazioaren xedea zatikatu den; horrek publikotasun eta lehia printzipioa urratzen du. Sendagaien kasuan, gertaera hau 61 milioi euroan egindako erosketetan azaleratu da, guztira aztertu ditugun 80,1 milioi eurokoetatik. Gainerako hornigaietan kontratazio espedienterik gabe gauzatutako erosketak aztertu dira, 70,6 milioi eurorenak eta egiaztatu da horien % 73,9an (52,2 milioi euro egin dutenak) produktu homogeneoen erosketa zatikatu dela (ikus A.5).



Langileria

8. Erakunde Zentralaren hainbat izapidetan jasotakoari jarraiki, hainbat produktibitate-osagarri ordaindu dira; horiek, ordea, ez zeuden aurreikusiak Osakidetzako langileen lan baldintzak arautzen dituen Erabakian, abenduaren 18ko 235/2007 Dekretu bidez onetsitakoa, ez eta hori aldarazten duen ekainaren 3ko 106/2008 Dekretuan ere. Honela, bada, 2010eko nominan ondoko kopuru hauek ordaindu dira: Lehen mailako atentzio unitateetan lanera etorri ez diren medikuak ordezkatzeagatik produktibitate-osagarria, 2,9 milioi eurorena; ospitaletako medikuentzat larunbat, igande eta jai egunetako goizeko moduluan zerbitzu emateagatik produktibitate-osagarria, 2,9 milioi eurorena; lehen mailako atentzio unitateetan erizaintzako etxez etxeko alta ondoko zainketagatik produktibitate-osagarri aldakorra, 660.465 eurorena eta lehen mailako atentzio unitateetan larunbat goizeko moduluagatik produktibitate-osagarria, 3,3 eurorena.
9. Osatek, S.A.n zerbitzu ematen duen Osakidetzako langileriak, nominaren autokontzertazio kontzeptuaren bitartez zerbitzu horiengatik ordainsaria jasotzen du, 2010eko urtean 370.549 euro egin dituen. Jarduera honek ez du inola ere autokontzertazio izaerarik.

Epaitegi honen ustetan, Osakidetzak, 1etik 9ra bitarteko paragrafoetan aipatutako lege hausteak alde batera, zuzentasunez bete du 2010eko ekitaldian ekonomia-finantzaren jarduera arautzen duen lege arauegia.

II.1.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA

Egoeraren balantzeak ez ditu barne hartzen Gizarte Segurantzatik eratorritako langileria estatutario sanitario ez fakultatiboaren erretiro osagarriak, ez Tuberkulosiaren kontrako Patronatuaren langileria funtzionarioarenak, ez eta 1994ko abenduaren 31 baino lehenago erretiratu zen Basurtoko Ospitaleko hainbat langilerena ere; ez eta 60 eta 64 urte artean erretiratu den langileria borondatezko erretiroagatik saria ere. Obligazio hauek erregistratzeko Osakidetzak kutxa irizpidea darabil eta gastu modura ekitaldian ordaindutako 7,5 milioi euroak jaso ditu. Oro har onartutako kontabilitateko printzipioen arabera, pentsio osagarriek eragindako obligazioak eta antzekoak azterketa aktuariaren bidez kuantifikatu behar dira eta zorpetze printzipioaren arabera erregistratu. Osakidetzak aditu independenteek egindako azterketa aktuariala du; azterketa honek bere pasibo aktuarialak 173,8 milioi euroan kuantifikatu ditu 2010eko abenduaren 31n; Osakidetzak, ordea, ez du dagokion zuzkidura egin. (Ikus A.3).

Epaitegi honen iritzira, aurreko idatz-zatian adierazitako salbuespena alde batera, Osakidetzaren Urteko Kontuek 2010eko ekitaldiaren jarduera ekonomikoa eta ondarearen eta 2010eko abenduaren 31n finantza egoeraren eta ekitaldian eragiketen emaitzen isla zuzena erakusten dute.



II.2 OSATEK, S.A.

II.2.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

1. Sozietateak 2010eko abenduan aurrekontuak 3,2 milioi euroan gehitu ditu Osarean zerbitzua abian jartzea finantzatzeko, Ekonomia eta Ogasun Saileko Aurrekontuen Zuzendaritzaren baimenarekin. Aintzat hartuta zenbateko aldaketa den sozietatearen hasierako guztizko aurrekontuaren gainean (% 14,8) EAEn Gobernu Kontseiluak onartu behar zukeen (1/1994 LDk onetsitako EAATBren 98.2 art.). (Ikus A.6).
2. “Osasun Zerbitzuen Zentro Multikanala (OZZM) garatu eta abian jartzeko” kontratazio espedientearen analisisian (1 zk. esp.), 12,9 milioi euroan esleitutakoa, esleipen hartzaile izan zen EABB osatzen zuten enpresetako batek kontratu honen prestaketa-agiria mamitzen parte hartu zuela atzeman da; prestaketa-agiri hori honako hau da: “Laguntza prozesuetan eta auto-zainketaren sustapenean IKTen eta telemedikuntzaren ustiaketa programaren gidaritza plana”. Agiri hori partzialki eskuratu zaie lehiatzaileei Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen 1. eta 45.1 artikulua urratuz, zeinaren arabera ezingo dute lizitazioetan esku hartu kontratuaren espezifikazio teknikoak edo prestakuntza agiriak mamitzen aritu diren enpresek, betiere parte hartze horrek lehia librea mugatzen badute edo gainerako enpresa lizitatzailerikiko pribilegiozko tratua eragiten badu. (Ikus A.6)
3. Ekitaldi batean luzagarria den 104.400 euroan esleitutako zerbitzu espediente batean arautze harmonizatuari lotutako kontratu baten berezko prozedura saihestu da (SPKLren 126.1 eta 138.2 art.) (7 zk. esp.). (Ikus A.6).
4. 193.720 euroan esleitutako hornidura espediente batean espediente bat aldaera bati esleitu zaio; ordea, Pleguek berariaz agintzen dute lehiatzaileek eskaintza bakarria aurkeztuko dutela (SPKLren 175. art.) (5 zk. esp.). (Ikus A.6).
5. 2010ean goi zuzendaritzako bi kontratu gauzatu dira IKTen zuzendari lanposturako; postu horren sorrera, baina, ez dute ez Osatek, S.A.ren Administrazio Kontseiluak, ez EAEn Gobernu Kontseiluak baimendu (130/1999 Dren 3. art.). (Ikus A.6).

Epaitegi honen ustetan, Osatek, S.A.k, 1etik 5era bitarteko paragrafoetan aipatutako lege haustek alde batera, zuzentasunez bete du 2010eko ekitaldian ekonomia-finantzaren jardura arautzen duen lege arautegia.

II.2.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA

Epaitegi honen iritzira, Osatek, S.A.ren Urteko Kontuek alderdi esanguratsu guztietan 2010eko ekitaldiaren jardura ekonomikoa erakusten dute, ondarearen eta 2010eko abenduaren 31n finantza egoeraren isla zuzena eta data horretan amaitutako urteko ekitaldian zehar bere eragiketen emaitzena.



III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK

Atal honek besarkatzen ditu bai ekonomia-finantza jarduera arautzen duten printzipioen betetzea nabarmen eragiten ez duten hutsak, bai prozedurazko alderdiak ere, kudeaketa hobetzeko azaleratu ditugunak.

III.1 AURREKONTUAK ETA KONTABILITATEA

- Osakidetzak ez du konpromiso kredituen exekuzioaren kontuetako jarraipen erabatekoa egiten, nahiz horiek 2010ean ez duten aurrekontuetan finkatutako urtekoen zenbatekoa gainditu.
- Kanpo auditoreek egindako aurrekontua eta legezketasuna betetzeari buruzko txostenak ez du iritziari dagokion paragrafoa barne hartzen.
- Aurrekontuen likidazio proposamena kanpoko auditoreek egin badute ere, ez du berariaz Osakidetzaren administrazio-kontseiluak formulatu, Osakidetzaren estatutu sozialak jasotzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuaren 8.5.b artikuluari jarraiki.
- Biltegi periferikoetako izakinak ez daude bere sistema informatikon jasoak eta honenbestez, ezta ondasun-zerrendaren etengabeko kontrolari meneratuak ere; guztira 3,3 milioi euroren zenbatekoa egiten dute, hau da, erakundearen izakin guztien % 9, gutxi gorabehera.
- Osakidetzako Artekaritza Zerbitzuaren txostenetan azaleratu den legez, aurreko ekitaldietan bezalaxe, kontratu txiki modura izapidetutako inbertsioen kontularitzako kontrolean sailkapen erroreak gertatzen dira oraindik ere. Bada, 28 zentrok guztira 5,7 milioi euroan gauzatutako inbertsioen erosketa aztertzean azaleratu diren errore errepikarietak honako hauek dira: kontabilitateak ondasunaren izaera ez gordetzea (558.268 euro) eta kontularitzako ondorioetarako ondasunak okerbidez multzo bezala hartzea (344.515 euro).

III.2 KONTRATAZIOA

Aurreko ekitaldietan 124,4 milioi euroan esleitutako 56 espedienteren lagina aztertu dugu, aldatu, luzatu edo 2010ean egikaritu direnak eta 47 kontratazio espediente, 65,1 milioi eurorenak, ekitaldi horretan esleitutakoak. Aztertutako espedienteen zerrenda A.5 eranskinean dago.

III.2.1 AURREKO EKITALDIETAN ESLEITUTAKO ESPEDIENTEAK

Hona hemen azaleratu diren akats adierazgarrienak

- Guztira 26,4 milioi euroan esleitutako 3 zerbitzu espedientetan prezioak berrikusi dira, horretarako pleguak formula edo adierazle ofizialik zehaztu gabe (SPKLren 78.1 art.) (35, 41 eta 52 zk. esp.).



- Kontratuaren prezioa legez aurreikusitako epea gaindituta ordaindu zen, 3 obra espedientetan, hornidurako 4 espedientetan eta zerbitzuetako 4 espedientetan, 7,4 milioi euroren zenbatekoan esleitutakoak (SPKLren 200.4 art.) (7, 8, 9, 10, 11, 12, 14, 16, 19, 20 eta 22 zk. esp.).
- Guztira 1,8 milioi euroan esleitutako 3 hornidura espedientetan, entregan izandako atzerapenaren ondorioz, ez da bete egikaritzza epea zati batean edo osorik (SPKLren 205 art.) (10, 11 eta 12 zk. esp.).

III.2.2 2010-EAN ESLEITUTAKO ESPEDIENTEAK

Hona hemen azaleratu diren akatsik adierazgarrienak

- Guztira 52 milioi euroan esleitutako 4 obra espedientetan, hornidurako 11tan, zerbitzuetako 7tan eta misto batean ekonomikoki eskaintza onuragarriena zehazteko kontratuen xedarekin zuzenean lotu gabeko esleipen irizpideak edo haztatu gabekak baliatu dira (SPKLren 134.1 eta 134.4 art.) (57, 58, 62, 66, 67, 68, 69, 70, 71, 72, 75, 77, 79, 83, 84, 89, 92, 93, 95, 96, 97, 98 eta 100 zk. esp.).
- Lizitazio iragarkiak ez ditu esleipen irizpideak eta horien haztapena adierazten hornidurako 8 espedientetan, zerbitzuko 6tan eta 2 mistotan, guztira 28,4 milioi euroren zenbatekoan esleitutakoak (SPKLren 134.5 art.) (58, 62, 63, 68, 71, 72, 75, 76, 77, 79, 83, 84, 89, 92, 93 eta 98 zk. esp.).
- Guztira 3,7 milioi euroren zenbatekoan esleitutako 3 zerbitzu espedientetan eta misto batean ez da sailkapenik eskatu, lanbide sailkapen desegokia eskatu da edo ez da egiaztatu (SPKLren 5. Xedapen Iragankorraren 54 eta 56 art. eta 9/2008 Errege Lege-dekretuaren 6. Xedapen Gehigarria) (63, 85, 90 eta 99 zk. esp.).
- Hornidura berriztagarrietan, luzapenak barne direla, 3 urteko iraupen aldia gainditu da justifikaziorik eman gabe 5,1 milioi euroren zenbatekoan esleitutako 4 espedientetan (SPKLren 23 eta 157.c art.) (83, 84, 91 eta 94 zk. esp.).
- Guztira 25,4 milioi euroan esleitutako hornidurako 10 espedientetan eta zerbitzuetako 2tan lizitazio iragarkiak ez du zehazten zein elementu edo baldintzen gainean aurkez daitezkeen aldaerak edo hobekuntzak (SPKLren 131.2 art.) (65, 67, 68, 76, 83, 84, 89, 92, 95, 96, 97 eta 98 zk. esp.).
- Guztira 4,4 milioi euroren zenbatekoan esleitutako 3 zerbitzu espedientetan eta misto batean eskaintzak balioztatzeke ez da adituen batzorderik osatu, automatikoki ebaluagarriak diren irizpideen egiazko haztapena balio judizio baten baitako direnena baino txikiagoa izanik (SPKLren 134.2 art.) (72, 75, 93 eta 100 zk. esp.). - Behin-behineko esleipen ebazpena garaiz kanpo egin da 8,5 milioi euroan esleitutako 2 obra espedientetan (SPKLren 145 art.) (69 eta 70 zk. esp.).
- Esleipena ez da aldizkari ofizialean argitaratu guztira 2,6 milioi euroan esleitutako 3 hornidura espediente eta zerbitzuetako 2tan (SPKLren 138.2 art.) (71, 72, 76, 77, eta 100 zk. esp.).



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

- Kontratuaren prezioa legez aurreikusitako epea gaindituta ordaindu zen, obren 2 espedientetan eta hornidurako espediente batean, guztira 12,5 milioi euroren zenbatekoan esleitutakoak (SPKLren 200.4 art.) (57, 64 eta 66 zk. esp.).
- Pleguaren arabera kontratua zuzen egikaritu dela egiaztatuko duen harrera akta falta da guztira 1,4 milioi euroren zenbatekoan esleitutako 3 zerbitzu espedientetan (SPKLren 205.2 art.) (72, 74 eta 75 zk. esp.).

Gainera, 28 zentrotan -guztira 5,7 milioi euroren zenbatekoan- kontratu txiki modura izapidetutako inbertsioen erosketan zatikatu egin da kontratazioaren xedea 10 zentrok gauzatutako erosketetan, 1,3 milioi eurorenak, eta horrek urratu egiten ditu legez kontratatzeko ezarritako prozedurak. Ez-betetze hauetatik % 63 “Erabilera klinikoa duen makineria” kontuan gertatu da.

III.3 LANGILERIA GASTUAK

- Osakidetzak ez dizkio Funtzio Publikoaren Sailburuordetzaren Lan Harremanetarako Zuzendaritzari 3/2010 Legea ezartzetik eratorritako ordainsari taulak igorri; horrek 2010eko uztailaren 20ko Gobernu Kontseiluaren Erabakiaren 5. atala urratzen du.
- Zerbitzu antolamenduetako gerenteek plantilla funtzionalak urte hasieran onesten dituzte, baina horiek ez dira ekitaldian zehar aldatzen uneoro Erakundearen administrazio-kontseiluak onetsitako egiturazko plantilletara egokitzeke. Honela, bada, zerbitzuetako 27 antolamenduetatik 18tan gainditu egin da hainbat talde profesionaletan administrazio-kontseiluak onetsitako egiturazko plantillan ezarritako langile kopurua, nahiz aldeak esanguratsuak ez izan.

18 zerbitzu antolamenduen 2010eko martxo eta urriko egiazko plantilla aztertzean ikusi dugu horietako 17tan, egiazko plantillak plantilla funtzionala gainditzen duela eta lanbide talderen batean baita egiturazko plantilla ere.

Uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuari jarraiki, Osakidetzako lanpostu funtzionalak arautzen dituen, plantilla funtzionalak dira Erakundearen antolamoldea kudeatzeko baliabidea. Horregatik, ekitaldian zehar gertatzen diren plantilla aldaketa guztiak jaso behar dituzte eta uneoro antolamendu bakoitzeko plantillaren egiazko egoera islatu, administrazio-kontseiluak egiturazko plantilletan ezarritako muga errespetatuz. (Ikus A.4).

- Osakidetzan Artekaritzak 11 antolamenduri dagozkien guztira 9.199 langile finko eta bitartekoetatik 700 langileren ordainsarien gainean egindako txostenetan honako huts hauek azaleratu dira:
 - 173 izendapenetan ez dago erabilitako prozeduraren dokumentuzko oinarriarik.
 - Bitarteko edo luzapenezko 56 izendapenetan egin beharreko zerbitzuen eta horien izaeraren identifikazioa falta da eta ez da justifikatzen LOSEren 26.5 artikuluan aurreikusitakoei dagozkienik; honenbestez, ez da horien objektibotasuna bermatzen.
 - 7 espedientetan behin-behineko izendapenetarako ezarritako 6 hilabeteko epemuga gainditu da; 3 espedientetan, aldi baterako barne sustapenen urtebeteko epea; 26



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

espedientetan, zerbitzu eginkizunetarako ezarritako 2 urtekoa eta 33 espedientetan maila jasoagoko egitekoetarako urtebeteko epea .

- 24 kasutan egiturazko beharrianak artatzen dituzten lanpostuak bete dira, plantilla funtzionalean jaso gabe daudenak.
- 27 kasutan nominako lanpostu funtzionala eta izendapenezkoa ez datoz bat, edo ez dira baliokideak.
- Erakunde Zentralean lanpostu korporatiboen ordainsariak ez datoz bat abenduaren 18ko 235/2007 Dekretu bitartez Gobernu Kontseiluak zehaztutakoarekin; dekretu horrek 2007-2009 aldirako Osakidetzako langileen lan baldintzen Akordio Arautzailea onesten du, 2010ean indarrean zegoena.
- 186 kasutan lanbide karrera kontzeptuko aurrerakinak ordaindu dira, ebaluazio prozesuaren deialdia behin-betiko ebatzi gabe zegoela, abenduaren 26ko 248/2007 Dekretuaren 11. artikuluan aurreikusitakoa; dekretu honek Osakidetzako kategoria ez sanitarioen eta Goi eta Erdi Mailako Lanbide Heziketako esparru sanitariokoen lanbide garapena arautzen ditu.
- Aldi baterako osagarriei dagozkien erregelamendu berariazkoak badiren arren, hala nola, mediku zaintzak, maila jasoagoko egitekoak, txandak, gaueko txandak, jaiegunak eta kokalekua, eta abar, oro har, arauak hausten jarraitzen da, egiaz gauzatutako zerbitzuak egiaztatuko dituen agiri justifikagarririk ez dagoelako eta zerbitzu horiek ez dituelako organo eskudunak onartzen.

III.4 OSATEK, S.A.

- Guztira 1,9 milioi euroan esleitutako hornidurako 2 espedientetan ez dago agindu teknikoaren plegurik (SPKLren 100 art.) (3 eta 4 zk. esp.) (Ikus A.6).
- 12,9 milioi euroan esleitutako zerbitzu espediente batean ez da etorkizuneko konpromisoen egoera zuzkitu, kontratuan aurreikusitako egikaritze epea 3 urtekoa izanik (SPKLren 93.3 art. eta EAATBren 55. art.) (1 zk. esp.). (Ikus A.6).
- Hornidura espediente batean, 577.764 eurorena, ez da esleipena DOUEn argitaratu (SPKLren 138.2 art.) (4 zk. esp.). (Ikus A.6).
- Hornidurako 2 espedientetan eta zerbitzuetako lean, guztira 15,8 milioi euroren zenbatekoan esleitutakoak, DOUEn argitaratutako lizitazio iragarkiak ez ditu esleipen irizpideak adierazten (SPKLren 134.5 art.) (1, 2 eta 3 esp.). (Ikus A.6).
- 12,9 milioi euroren zenbatekoan esleitutako zerbitzu espediente batean esleipen irizpideetako bat, % 15eko haztapena eman zaiona, pleguaren edukari egindako hobekuntzak da; ordea, ez dira zehaztu zein diren aintzat hartzeko ezaugarri esanguratsuenak ekonomikoki onuragarrien den eskaintza eskuratzeko (SPKLren 131.2 art.) (1 zk. esp.). (Ikus A.6)
- Guztira 2,4 milioi euroren zenbatekoan esleitutako hornidurako 3 espedientetan ez dago kontratua osorik edo partzialki bete dela egiaztatuko duen harrera-aktarik (SPKLren 205 art.) (2, 4 eta 5 zk. esp.). (Ikus A.6).

**IV. URTEKO KONTUAK****IV.1 OSAKIDETZAREN KONTUAK-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA ENTEA**

BALANTZEA 2010-EKO ABENDUAREN 31-N		Euroak milakotan	
AKTIBOA	2010	2009	
AKTIBO EZ ARRUNTA	925.084	880.788	
Ibilgetu ukiezina.....	19.348	19.348	19.392
Aplikazio informatikoak	19.348		19.392
Ibilgetu materiala	603.691	899.671	855.040
Lur-sailak eta eraikuntzak.....	603.691		565.506
Instalakuntza teknikoak eta bestelako ibilgetu materiala	191.278		170.926
Abian dagoen ibilgetua eta aurrerakinak.....	104.702		118.608
Taldeko enpresetan eta elkartutakoetan epe luzeko inbertsioak .		4.352	4.352
Ondare baliabideak	4.352		4.352
Finantza inbertsioak e/luz.....		1.713	2.004
Hirugarrenei kredituak	1.652		1.943
Bestelako aktibo finantzarioak	61		61
AKTIBO ARRUNTA	445.380	453.958	
izakinak		37.363	36.200
Botikako produktuak	16.001		15.622
Kontsumoko osasun materiala	18.144		17.377
Bestelako hornidurak	3.218		3.201
Merkataritzako zordunak eta kobratz. beste kontu batzuk		125.576	225.204
Salmenta eta zerbitzu emakidengatiko bezeroak.....	2.078		3.582
Taldeko enpresak eta elkartuak.....	120.298		218.260
Askotariko zordunak.....	1.030		1.094
Langileria.....	2.170		2.268
Finantza inbertsioak e/lab.....		644	478
Bestelako aktibo finantzarioak	644		478
e/lab. aldizkakotzeak.....		1.293	1.643
Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak		280.504	190.433
Diruzaintza	280.504		190.433
AKTIBOA GUZTIRA	1.370.464	1.334.746	



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

BALANTZEA 2010-EKO ABENDUAREN 31-N		Euroak milakotan	
	2010	2009	
ONDARE GARBIA ETA PASIBOA			
ONDARE GARBIA	960.621	909.672	
Berezko funtsak	32.261	24.723	
Funts soziala	17.069	17.069	
Aurreko ekitaldietako ondorioak	7.654	3.368	
Geldikina	7.654	27.819	
Aurreko ekitaldietako emaitza negatiboak	-	(24.451)	
Ekitaldiaren emaitza	7.538	4.286	
Diru-laguntzak, dohaintzak eta jasotako legatuak	928.360	884.949	
PASIBO EZ ARRUNTA	12.722	12.739	
E/luz. zuzkidurak	9.816	12.739	
Bestelako hornidurak	9.816	12.739	
E/luzeko zorrak	2.906	-	
Bestel. finantza pasibo batzuk	2.906	-	
PASIBO ARRUNTA	397.121	412.335	
E/laburreko zorrak	38.556	22.844	
Bestel. finantza pasibo batzuk	38.556	22.844	
Taldeko enpresa eta asoziatuekiko zorrak epe lab.	45.705	20.508	
Merkataritz. hartzek. eta ordain. beste kontu batzuk	312.636	368.762	
Hornitzaileak	176.634	205.125	
Hornitzaileak, taldeko enpresak eta elkartutakoak	5.705	9.994	
Askotariko hartzekodunak	4.498	5.713	
Langileria (ordaintzeko dauden ordainsariak)	5.391	16.776	
Bestelako zorrak Administrazio Publikoekin	120.408	131.154	
e/lab. aldizkakotzeak	224	221	
ONDARE GARBIA ETA PASIBOA GUZTIRA	1.370.464	1.334.746	



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

2010-EKO ABENDUAREN 31-N GALERA-IRABAZIEN KONTUAK

Euroak milakotan

	2010	2009
ERAGIKETA JARRAITUAK		
Negozio zifraren zenbateko garbia	2.448.415	2.411.809
Hornidurak	(554.975)	(540.907)
Botika produktuen kontsumoa	(201.008)	(192.418)
Osasun materialaren kontsumoa	(204.727)	(196.965)
Beste hornikuntza batzuen kontsumoa	(31.691)	(32.178)
Kanpoko beste gastu batzuk	(117.409)	(119.286)
Salgai, lehengai eta bestelako hornigaien narriadura	(140)	(60)
Bestelako ustiaketa sarrerak	30.294	35.954
Sarrera osagarriak eta kudeaketa arrunteko beste batzuk	29.076	30.583
Diru-laguntzak	1.218	5.371
Langileria-gastuak	(1.763.417)	(1.750.591)
Soldatak, lansariak eta antzekoak	(1.399.562)	(1.383.100)
Gizarte zamak	(363.855)	(367.491)
Bestelako ustiapen gastuak	(154.800)	(156.529)
Kanpoko zerbitzuak	(146.993)	(146.043)
Tributuak	(509)	(792)
Merkat. eragiket.gatik galerak, narriad. eta hornig. bariatz	(1.591)	(4.288)
Beste kudeaketa-gastu arrunt batzuk	(5.707)	(5.406)
Ibilgetuaren amortizazioa	(57.953)	(55.624)
Ibilgetu ez finantzarioaren diru-lag. egozketa eta beste	58.505	55.624
Ibilgetua besterenganatzeagatik narriadura eta emaitza	(429)	185
Narriadura eta galerak	(596)	-
Besterenganatzeagatiko emaitzak eta beste	167	185
USTIAKETAREN EMAITZA	5.640	(79)
Finantza sarrerak	2.012	4.365
Balio negoziagarri eta bestelako finantza baliabideena		
Hirugarrenena	2.012	4.365
Finantza gastuak	(115)	-
Hirugarrenetikiko zorreatatik	(115)	-
Trukaneurri aldeak	1	-
EMAITZA FINANTZARIOA	1.898	4.365
EMAITZA ZERGA AURRETIK	7.538	4.286
ERAGIKETA JARRAITUETATIK ERATORRITAKO EKITALDIAREN EMAITZA	7.538	4.286
EKITALDIAREN EMAITZA	7.538	4.286



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

2010-EKO ABENDUAREN 31-N AITORTUTAKO SARREREN ETA GASTUEN EGOERA	Euroak milakotan	
	2010	2009
GALERA ETA IRABAZIEN KONTUAREN EMAITZA	7.538	4.286
ONDARE GARBIAZUZENEAN JASOTAKO SARRERA ETA GASTUAK		
Diru-laguntzak, dohaintzak eta jasotako legatuak	101.916	131.577
ONDARE GARBIAZUZENEAN JASOTAKO SARRERA ETA GASTUAK GUZTIRA	101.916	131.577
GALERA ETA IRABAZIEN KONTURAKO TRANSFERENTZIAK GUZTIRA		
Diru-laguntzak, dohaintzak eta jasotako legatuak	(58.505)	(55.624)
GALERA ETA IRABAZIEN KONTURAKO TRANSFERENTZIAK GUZTIRA	(58.505)	(55.624)
AITORTUTAKO SARRERAK ETA GASTUAK GUZTIRA	50.949	80.239

ONDARE GARBIAZUZENEAN ALDAKETEN EGOERA GUZTIRA, 2010-EKO ABENDUAREN 31-N	Euroak milakotan				
	FUNTS SOZIALA	AURREKO	JASOTAKO DIRU-LAG.		
		EKITALD. EMAITZAK	EKITALD. EMAIT.	DOHAINT. ETA LEGATUAK	GUZTIRA
2008-KO URTEKO AZKEN SALDOA	17.069	1.414	1.954	808.996	829.433
Aitortutako sarrerak eta gastuak guztira.....	-	-	4.286	75.953	80.239
Ondare garbiaren bestelako aldaketak	-	1.954	(1.954)	-	-
2009-KO URTEKO AZKEN SALDOA	17.069	3.368	4.286	884.949	909.672
Aitortutako sarrerak eta gastuak guztira.....	-	-	7.538	43.411	50.949
Ondare garbiaren bestelako aldaketak	-	4.286	(4.286)	-	-
2010-EKO URTEKO AZKEN SALDOA	17.069	7.654	7.538	928.360	960.621



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

ESKUDIRUZKO FLUXUEN EGOERA 2010-EKO ABENDUAREN 31-N

Euroak milakotan

	2010	2009
USTIAKETA JARDUEREN ESKUDIRUZKO FLUXUAK		
Ekitaldiaren emaitza zerga aurretik.....	7.538	4.286
Emaitzaren doiketak.....	2.143	7.372
Ibilgetuaren amortizazioa.....	57.953	55.624
Zuzkiduren aldaketa.....	4.163	11.922
Diru-laguntzen egozketa.....	(58.505)	(55.624)
Baja eta besterenganatzeengatik emaitzak.....	429	(185)
Finantza sarrerak.....	(2.012)	(4.365)
Finantza gastuak.....	115	-
Kapital arruntean aldaketak	35.438	(20.078)
izakinak	(1.163)	(2.414)
Zordunak eta kobratzeko beste kontu batzuk	99.559	(61.051)
Beste aktibo arrunt batzuk	350	-
Hartzekodunak eta ordaintzeko beste kontu batzuk.....	(61.015)	44.779
Beste pasibo arrunt batzuk.....	4	396
Beste pasibo arrunt batzuk.....	(2.297)	(1.788)
Ustiaketa jardueren eskudiruzko beste fluxu batzuk	1.865	6.092
Interesen ordainketak	(1)	-
Interesen kobrantzak	1.866	6.092
Ustiaketa jardueren eskudiruzko fluxuak	46.984	(2.328)
INBERTSIO-JARDUEREN ESKUDIRUZKO FLUXUAK		
Inbertsioek erag. ordainketak.....	(89.637)	(207.075)
Ibilgetu material eta ukiezina	(87.324)	(204.585)
Bestelako aktibo finantzarioak	(2.313)	(2.490)
Inbertsio ezagatik kobrantzak.....	2.819	356
Ibilgetu material eta ukiezina	167	303
Bestelako aktibo finantzarioak	2.652	53
INBERTSIO-JARDUEREN ESKUDIRUZKO FLUXUAK	(86.818)	(206.719)
FINANTZAKETA JARDUEREN ESKUDIRUZKO FLUXUAK		
Ondareko baliabideengatik kobrantza eta ordainketak	124.155	152.084
Diru-laguntzak, dohaintzak eta jasotako legatuak	124.155	152.084
Finantza pasiboko baliabideen kobrantza eta ordainketak	5.750	-
Beste zor batzuen jaulkipena.....	5.750	-
Finantzaketa jardueren eskudiruzko fluxuak	129.905	152.084
ESKUDIRU EDO BALIOKIDEEN IGOERA (MURRIZKETA) GARBIA	90.071	(56.963)
Eskudirua edo baliokideak ekitaldi hasieran.....	190.433	247.396
Eskudirua edo baliokideak ekitaldi amaieran.....	280.504	190.433



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

KAPITALAREN AURREKONTUA	Euroak milakotan			
	EGIAZKOA	AURREK.	DESBIDERATZEA	
ZENBATEKOA			%	
FINANTZAKETAK				
Kapital diru-laguntzak	124.155	124.439	(284)	(0,2%)
Finantza pasiboko baliabideak jaulkitzeag. kobrantzak	5.750	11.750	(6.000)	(51,1%)
Inbertsio ezagatikobrantzak.....	2.819	1.808	1.011	55,9%
FINANTZAKETAK GUZTIRA	132.724	137.997	(5.273)	(3,8%)
APLIKAZIOAK				
Ibilgetuaren erosketak				
Ukiezina	7.265	17.202	(9.937)	(57,8%)
Materiala	95.871	149.402	(53.531)	(35,8%)
Bestelako aktibo finantzarioak	2.313	1.808	505	27,9%
Kapital zirkulatuaren aldaketa	27.275	(30.415)	57.690	(189,7%)
APLIKAZIOAK GUZTIRA	132.724	137.997	(5.273)	(3,8%)

USTIAPENAREN AURREKONTUA	Euroak milakotan			
	EGIAZKOA	AURREK.	DESBIDERATZEA	
ZENBATEKOA			%	
SARRERAK				
Negozio zifraren zenbateko garbia	2.448.415	2.477.584	(29.169)	(1,2%)
Bestelako ustiaketa sarrerak	30.294	5.228	25.066	479,5%
Finantza sarrerak.....	2.012	6.348	(4.336)	(68,3%)
Ekitaldiko emaitzara transferitutako diru laguntzak	58.505	65.055	(6.550)	(10,1%)
SARRERAK GUZTIRA	2.539.226	2.554.215	(14.989)	(0,6%)
GASTUAK				
Hornidurak	554.975	540.554	14.421	2,7%
Langileria-gastuak	1.763.417	1.792.362	(28.945)	(1,6%)
Amortizazioetarako zuzkidurak	57.953	65.055	(7.102)	(10,9%)
Bestelako ustiapen gastuak	149.964	151.246	(1.282)	(0,8%)
Eman beharreko diru-laguntzak	4.835	4.998	(163)	(3,3%)
Ibilgetua besterenganatzeagatik narriadura eta emaitza	429	-	429	100%
Finantza gastuak	115	-	115	100%
Ekitaldiaren mozkina.....	7.538	-	7.538	100%
GASTUAK GUZTIRA	2.539.226	2.554.215	(14.989)	(0,6%)

ETORKIZUNEN KOMPROMISOEN EXEKUZIOA 2010-EKO ABENDUAREN 31-N	Euroak milakotan			
	GUZTIRA	2011	2012	2013
EGUNGO AURREKONTUA	110.305	75.070	32.100	3.135
Gauzatua	62.684	52.715	8.847	1.122
Aldea	47.621	22.355	23.253	2.013



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

IV.2 OSATEK, S.A.-REN KONTUAK

EGOERAREN BALANTZEA 2010-EKO ABENDUAREN 31-N

Euroak milakotan

AKTIBOA	2010	2009
AKTIBO EZ ARRUNTA	8.801	6.810
Ibilgetu ukiezina.....	1.003	953
Aplikazio informatikoak	1.003	37
Beste ibilgetu ukiezin bat	-	916
Ibilgetu materiala	7.795	5.848
Eraikuntzak.....	898	-
Instalak. teknikoak, makineria, tresneria, ibilg. eta best. ibilg. materiala.....	6.897	5.075
Abian dagoen ibilgetua eta aurrerakinak.....	-	773
Finantza inbertsioak epe luzera	3	9
Hirugarrenei kredituak	3	9
AKTIBO ARRUNTA	14.249	13.628
izakinak	78	235
Lehengaiak eta bestelako hornidurak	78	235
Merkataritzako zordunak eta kobratz. beste kontu batzuk	3.229	3.229
Salmenta eta zerbitzu emakidengatiko bezeroak.....	18	57
Bezeroak, taldeko enpresak eta elkartuak.....	3.196	3.155
Langileria.....	15	17
Aldizkakotzeak epe laburrera	3	-
Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak	10.939	10.164
Diruzaintza	10.939	10.164
AKTIBOA GUZTIRA	23.050	20.438
		Euroak milakotan
ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	2010	2009
ONDARE GARBIA	17.932	16.450
Berezko funtsak	13.304	12.509
Kapitala	3.123	3.123
Eskrituran jasotako kapitala	3.123	3.123
Erretserbak	9.386	8.545
Legezko eta estatutarioak	672	672
Beste erretserba batzuk	8.714	7.873
Ekitaldiaren emaitza	795	841
Diru-laguntzak, dohaintzak eta jasotako legatuak	4.628	3.941
PASIBO EZ ARRUNTA	1.800	1.533
Geroratutako zerga kontzeptuko pasiboak.....	1.800	1.533
PASIBO ARRUNTA	3.318	2.455
Zorra e/lab.	1.276	-
Bestel. finantza pasibo batzuk	1.276	-
Merkataritz. hartzek. eta ordain. beste kontu batzuk.....	2.042	2.455
Hornitzaileak	71	84
Hornitzaileak, taldeko enpresak eta elkartutakoak.....	555	693
Askotariko hartzekodunak	359	539
Langileria (ordaintzeko dauden ordainsariak)	417	493
Zerga arruntak erag. pasiboak	140	145
Bestelako zorrak Administrazio Publikoekin	500	501
ONDARE GARBIA ETA PASIBOA GUZTIRA	23.050	20.438



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

2010-EKO ABENDUAREN 31-N GALERA-IRABAZIEN KONTUAK

Euroak milakotan

	2010	2009
A) ERAGIKETA JARRAITUAK		
Negoio zifraren zenbateko garbia	16.443	16.442
Zerbitzu ematea	16.433	16.442
Hornidurak	(800)	(1.153)
Lehengaien eta bestelako material ahikorren kontsumoa	(800)	(1.153)
Bestelako ustiaketa sarrerak	-	11
Ekitaldiaren emaitzara txertatutako ustiaketako diru-laguntzak	-	11
Langileria-gastuak	(10.200)	(10.128)
Soldatak, lansariak eta antzekoak	(8.500)	(8.332)
Gizarte zamak	(1.700)	(1.796)
Bestelako ustiapen gastuak	(3.093)	(2.700)
Kanpoko zerbitzuak eta kudeaketa arrunteko best. gtu.....	(3.078)	(2.683)
Tributuak.....	(15)	(17)
Ibilgetuaren amortizazioa	(1.512)	(1.581)
Ibilgetu ez finantzarioko diru-laguntzak egoztea eta beste	1.446	19
Ibilgetua besterenganatzeagatik narriadura eta emaitza	(1.424)	-
Besterentzeagatik emaitza eta beste	(1.424)	-
USTIAKETAREN EMAITZA	860	910
Finantza sarrerak.....	80	98
Balio negoziagarri eta bestelako finantza baliabideena	80	98
Hirugarrenena	80	98
Finantza gastuak.....	-	(14)
Hirugarrenetikiko zorreatatik.....	-	(14)
EMAITZA FINANTZARIOA	80	84
EMAITZA ZERGA AURRETIK	940	994
Mozkinen gaineko zerga.....	(145)	(153)
ERAGIKETA JARRAITUETATIK ERATORRITAKO EKITALDIAREN EMAITZA	795	841
B) ETENDAKO ERAGIKETAK	-	-
Etendako eragiketetatik eratorritako ekitaldiaren emaitzak, zergarik gabe	-	-
EKITALDIAREN EMAITZA	795	841



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

ONDARE GARBIAK ALDAKETEN EGOERA GUZTIRA, 2010-EKO ABENDUAREN 31-N	Euroak milakotan	
	2010	2009
GALERA ETA IRABAZIEN KONTUAREN EMAITZA	795	841
Diru-laguntzak, dohaintzak eta jasotako legatuak	2.400	3.000
Zerga ondorioa	(672)	(840)
ONDARE GARBIAK ZUZENEAN JASOTAKO SARRERA ETA GASTUAK GUZTIRA	1.728	2.160
Diru-laguntzak, dohaintzak eta jasotako legatuak	(1.446)	(19)
Zerga ondorioa	405	5
GALERA ETA IRABAZIEN KONTURAKO TRANSFERENTZIAK GUZTIRA	(1.041)	(14)
AITORTUTAKO SARRERAK ETA GASTUAK GUZTIRA	1.482	2.987

ONDARE GARBIAK ALDAKETEN EGOERA GUZTIRA, 2010-EKO ABENDUAREN 31-N	Euroak milakotan					
	ESKRIT. JASOT.		AURREKO		DIRU-LAG.	
	KAPITALA	ERRETSERB.	EKITALD. EMAITZ.	EKITAL. EMAITZ.	DOHAINZ. ETA BESTE	GUZT.
2008-KO URTE AMAIERAKO SALDOA	3.123	7.197	-	1.348	1.795	13.463
Irizpide aldatuetatik doikuntzak, 2008	-	-	-	-	-	-
Errorengatik doikuntzak, 2008	-	-	-	-	-	-
DOITUTAKO SALDOA, 2008-KO URTE HASIERA	3.123	7.197	-	1.348	1.795	13.463
Aitortutako sarrerak eta gastuak guztira.....	-	-	-	841	2.146	2.987
Bazkide edo jabeekiko eragiketak.....	-	-	-	-	-	-
Ondare garbiaren bestelako aldaketak	-	1.348	-	(1.348)	-	-
2009-KO URTE AMAIERAKO SALDOA	3.123	8.545	-	841	3.941	16.450
DOITUTAKO SALDOA, 2010-EKO URTE HASIERA	3.123	8.545	-	841	3.941	16.450
Aitortutako sarrerak eta gastuak guztira.....	-	-	-	795	687	1.482
Bazkide edo jabeekiko eragiketak.....	-	-	-	-	-	-
Ondare garbiaren bestelako aldaketak	-	841	-	(841)	-	-
2010-EKO URTE AMAIERAKO SALDOA	3.123	9.386	-	795	4.628	17.932



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

ESKUDIRUZKO FLUXUEN EGOERA 2010-EKO ABENDUAREN 31-N

Euroak milakotan

	2010	2009
USTIAKETA JARDUEREN ESKUDIRUZKO FLUXUAK	3.302	746
Ekitaldiaren emaitza zerga aurretik.....	940	994
Emaitzaren doiketak.....	1.489	1.463
Ibilgetuaren amortizazioa.....	1.512	1.581
Diru-laguntzen egozketa.....	(1.446)	(19)
Ibilgetuaren baja eta besterenganatzeengatik emaitzak.....	1.423	-
Finantza sarrerak.....	-	(99)
Kapital arruntean aldaketak.....	1.008	(1.657)
izakinak.....	157	3
Zordunak eta kobratzeko beste kontu batzuk.....	-	(590)
Beste aktibo arrunt batzuk.....	(3)	3
Hartzekodunak eta ordaintzeko beste kontu batzuk.....	(422)	(1.073)
Beste pasibo arrunt batzuk.....	1.276	-
Ustiaketa jardueren eskudiruzko beste fluxu batzuk.....	(135)	(54)
Interesen kobrantzak.....	-	99
Kobrantzak (Ordainketak) mozkinen gaineko zerga kontzeptuan.....	(135)	(153)
Ustiaketa jardueren eskudiruzko fluxuak.....	3.302	746
INBERTSIO-JARDUEREN ESKUDIRUZKO FLUXUAK	(4.927)	(828)
Inbertsioek erag. ordainketak.....	(4.932)	(828)
Ibilgetu ukiezina.....	(82)	(6)
Ibilgetu materiala.....	(4.850)	(828)
Bestelako aktibo finantzarioak.....	-	6
Inbertsio ezagatik kobrantzak.....	5	-
Bestelako aktibo finantzarioak.....	5	-
Inbertsio-jardueren eskudiruzko fluxuak.....	(4.927)	(828)
FINANTZAKETA JARDUEREN ESKUDIRUZKO FLUXUAK	2.400	3.000
Ondareko baliabideengatik kobrantza eta ordainketak.....	2.400	3.000
Diru-laguntzak, dohaintzak eta jasotako legatuak.....	2.400	3.000
Finantzaketa jardueren eskudiruzko fluxuak.....	2.400	3.000
ESKUDIRU EDO BALIOKIDEEN IGOERA/MURRIZKETA GARBIA	775	2.918
Eskudirua edo baliokideak ekitaldi hasieran.....	10.164	7.246
Eskudirua edo baliokideak ekitaldi amaieran.....	10.939	10.164



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

KAPITALAREN AURREKONTUA

Euroak milakotan

	HASIERAKO AURREK.	ALDAKETA	BEHIN-BET. AURREKONT.	GAUZATUA	DESBIDERATZE ZENBATEKOA
INBERTSIOAK					
Inbertsioek erag. ordainketak.....	3.908	2.400	6.308	4.932	1.376
Ibilgetu ukiezina	150	-	150	82	68
Ibilgetu materiala.....	3.750	2.400	6.150	4.850	1.300
Finantza inbertsioak.....	8	-	8	-	8
Eskudiruaren igoera garbia.....	-	-	-	775	(775)
INBERTSIOAK GUZTIRA	3.908	2.400	6.308	5.707	601
FINANTZAKETA					
Ustiaketa jardueren eskudiruzko fluxua	2.857	-	2.857	3.302	(445)
Ondareko baliabideengatik kobrantzak	-	2.400	2.400	2.400	-
Diru-laguntzak.....	-	2.400	2.400	2.400	-
Inbertsio ezagatik kobrantzak.....	-	-	-	5	(5)
Eskudiruaren murrizketa garbia.....	1.051	-	1.051	-	1.051
FINANTZAKETA GUZTIRA	3.908	2.400	6.308	5.707	601

USTIAPENAREN AURREKONTUA

Euroak milakotan

	HASIERAKO AURREK.	ALDAKETA	BEHIN-BET. AURREKONT.	GAUZATUA	DESBIDERATZE ZENBATEKOA
ZUZKIDURAK					
Hornidurak	1.259	-	1.259	800	459
Langileria-gastuak	10.862	350	11.212	10.200	1.012
Ibilgetuaren amortizazioak	1.943	-	1.943	1.512	431
Ibilgetua besterenganatzeagatik narriadura eta emaitza (1.424)		-	-	-	1.424
Bestelako ustiapen gastuak	3.165	450	3.615	3.093	522
Sozietateen gaineko zerga	75	-	75	145	(70)
Ekitaldiaren mozkina.....	409	-	409	795	(386)
ZUZKIDURAK GUZTIRA	17.713	800	18.513	17.969	544
BALIABIDEAK					
Negozio zifra	17.316	800	18.116	16.443	1.673
Bestelako ustiaketa sarrerak	24	-	24	-	24
Diru-laguntzen egozketa eta erabilera eskub.	253	-	253	1.446	(1.193)
Finantza sarrerak.....	120	-	120	80	40
BALIABIDEAK GUZTIRA	17.713	800	18.513	17.969	544





ALEGAZIOAK, OSAKIDETZA-OSASUNAREN EUSKAL ZERBITZUA ZUZENBIDE PRIBATUKO ERAKUNDE PUBLIKOAREN 2010-EKO EKITALDIAREN FISKALIZAZIOAREN ONDORIOEI EKONOMIA KONTROLERAKO BULEGOAREN ZUZENDARI-OHIAK JARRITAKOAK.

7. ORRIALDEA, II.2.1, 3 ATALA

HKEEK aipagai duen bateraezintasun kausa hautemateko, enpresa bat lehiaketaz kanpo uztea ondorio larria berekin dakarrena, dena delako lizitatzailleak izan duen abantaila egiaztatua uzteko eskatzen da eta ez da nahikoa suposamendu edo presuntzio hutsa (ikus, esate batera, Kontratuei buruzko Errekurtsoen Administrazio Auzitegi Nagusiaren 34/2010 Ebazpena). Kasu zehatz honetan ez dago erasota eta ez da frogatu abantaila hori izan denik eta honenbestez, ezin har daiteke enpresa bat prozeduraz kanpo uztea bezainbesteko erabaki erabatekorik; bereizkeriako erabakia zatekeen hori eta berdintasun printzipioaren aurkakoa.

Tartekia ezabatzeko eskatzen da.

ALEGAZIOAK, OSAKIDETZA-OSASUNAREN EUSKAL ZERBITZUA ZUZENBIDE PRIBATUKO ERAKUNDE PUBLIKOAREN 2010-EKO EKITALDIAREN FISKALIZAZIOAREN ONDORIOEI EKONOMIA KONTROLERAKO BULEGOAREN ZUZENDARIAK JARRITAKOAK.

III.1. AURREKONTUAK ETA KONTABILITATEA

Kanpoko kontu-ikuskariak aurrekontu-betetzeari eta legezketasunari buruz egindako txostenak ez dakar ezarritako iritzi-paragraforik.

Kontrol Ekonomikoko Bulegoak 2010ean ezarri zuen eredu bat aurrekontu-betetzeari eta legezketasunari buruzko txostenarentzat. Txosten-eredu horretan, aurrekontu-betetzearen eta legezketasunaren gaineko iritzia eskatzen zitzaion kontu-ikuskariari. Hala ere, kontu-ikuskariak kasu horretan burututako berrikuspenak ez ditu betetzen kontu-ikuskatzeko lan baten berezko ezaugarriak, eta Kontu Ikuskatzeari buruzko Legearen aplikazio-eremutik kanpo geratzen da; horrenbestez, erakunde eta sozietate publikoek kontrataturiko ikuskatze-enpresek adierazi zuten ezen, horrelako lanetan, egin beharreko prozedurak eta probak mugatuak direla eta ez dutela helburutzat ikuskariari beharrezko ebidentzia eskuratzea kontu-ikuskatzeko iritzia eman dezan, baizik eta ikuskariari aukera ematea iritzia azal dezan, txostenean adierazten diren prozedura zehatzak aplikatuta, aztarnarik ba ote dagoen berrikusten den informazioa zuzena den ala ez. Iritzia, hortaz, ez da kontu-ikuskatzearen alorrekoa, zehazki, lehenago adierazi bezala. Aurrekoaz gain, txosten-eredu berak dio aplikatutako berrikuspen-prozedurak nabarmen apalagoak direla kontu-ikuskatzekoak baino, eta, horregatik, ez dela kontu-ikuskatzearen alorreko iritzirik adierazten.



2011ko ekitaldiko eta hurrengoetako kontu-ikuskatzeari begira, Kontrol Ekonomikoko Bulegoak eta ikuskatze-enpresek adostutako prozeduren txostena hitzartu zen, eta erakunde eta sozietate publikoen aurrekontu-betetzea eta legezatasuna aztertzerakoan erabili beharreko prozedura zehatzak ezarri ziren, eta dokumentu bat (memoria) agindu zen, dena delako erakundeak edo sozietateak prestatu beharrekoa, sozietateek bidali eta ikuskariak berrikusi beharreko bestelako informazioa jaso behar zuena, aurreko alderdiez gain. Ikuskariak eman beharreko txostenaren eredia eta erakundeek eta sozietateek prestatu beharreko memoriaren edukia zehaztuta ageri dira “Ekitaldiko aurrekontu orokorren likidaziorako informazioa”ri buruzko urteroko zirkularrean.

ALEGAZIOAK, OSAKIDETZA-OSASUNAREN EUSKAL ZERBITZUA ZUZENBIDE PRIBATUKO ERAKUNDE PUBLIKOAREN 2010-EKO EKITALDIAREN FISKALIZAZIOAREN ONDORIOEI OSAKIDETZAK JARRITAKOAK.

II.1.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA KONTRATAZIOA (IKUSI A.5)

1. Aurreikusitako kontratu-iraupenak legezko muga maximoa gainditzen du 13,8 milioi euroan esleitutako 6 zerbitzu-espeditetan (SPKLren 23 eta 279.1 art.) (85, 86, 87, 89, 9 eta 92 espedienteak).

ALEGAZIOAK:

85, 86, 87, 89, 90 eta 92 ESPEDIENTEAK

SPKLren 279.1 artikuluan, kontratuen iraupenari buruzkoan, ezarritakoaren arabera, *“zerbitzu-kontratuek ezingo dute lau urtetik gorako indarraldia izan Administrazio Publikoen aurrekontu-arauetan ezarritako kondizioekin eta mugekin; nolana ere, kontratuan bertan aurreikus daiteke kontratua amaitu baino lehen aldean arteko adostasunez kontratua luzatzeko aukera, betiere kontratuaren luzera osoa luzapenak barne ez bada sei urtetik gorakoa eta luzapenek banan-banan edo denak batera ez badute jatorrian ezarritako epea gainditzen.”*

85, 85, 86, 87, 89, 90 eta 92 espedienteek dagokienez, Donostia Ospitaleak SPKLren 279. artikuluan (gaur TRLCSPren 303 artikulua denaren) okerreko interpretazioa egin du 2011 arte; izan ere, ospitale horrek ez du baturen guztizko osoa "banan-banan edo denak batera" hartu, baizik eta luzapen guztien batura dena batera hartu du 6 urteko gehienezko epe batekin. Errorea hauteman bezain laster, espedienteak artikuluan horren arabera bideratu ziren.



2. Baldintza-orrietan legez aurreikusitako denbora-muga gainditu du luzapenak, edo luzapena kontratua iraungi ondoren luzatu da, 44,3 milioi euroan esleitutako 9 hornidura-espeditetan eta 7 zerbitzu-espeditetan (SPKLren 23, 76.1 eta 157.c artikulatuak) (27, 28, 30, 31, 33, 35, 38, 39, 41, 44, 45, 49, 51, 52, 54 eta 55 espedienteak).

ALEGAZIOAK

27, 28, 30, 31, 33 eta 35 ESPEDIENTEAK

27, 28, 30, 31, 33 eta 35 espedienteek dagokienez, luzapenaren iraupena izapidetze bidean dagoen kontratazio-espediten berri baten esleipenaren araberakoa da, kasu guztietan. Esleipena atzeratzen den kasuetan, bi aukera baino ez daude: edo lehiaketaz kanpo erosi edo espediten berri bat esleitu arte luzatu. Uste dugu azken aukera hori dela legez egokiena, eta hautatutako hornitzaileei eta prezioei buruzko ziurgabetasunak eta arbitrariotasunak saihesten ditu.

38 espedientean, kontratazio-espeditetari zegokion hasierako kontratua 2007ko urriaren 24an sinatu zen urtebeterako, eta gehienez beste bi urterako luza zitekeen. Urtebeteko lehen luzapena 2008ko azaroan sinatu zen; urtebeteko bigarren luzapena 2009ko azaroan sinatu zen; eta, azkenik, 2010eko azaroan aparteko luzapen bat sinatu zen.

Kontratazio Mahaiaren idazkariak horren inguruan egindako txosten juridikoan agerienez, "kontuan hartuta Basurtuko Unibertsitate Ospitaleko laborategirako biokimika orokorreko eta immunokimikako analisiak hornitzeko espediten berria egitea konplexua dela eta beharrezkoa dela analisi horiekin jarraitzea, espediten berriaren izapideak amaitzeko eta indarrean jartzeko denbora emateko helburuarekin nahitaezkoa da luzapen bat ematea, harik eta Basurtuko Unibertsitate Ospitaleko funtzionamendurako kontratu berri bat sinatu arte (gehienez, beste urtebeterako), kontratua ez edukitzeak ospitaleari oztopo edo kalte larririk ez eragiteko; kontuan hartuta espedientean jasota dagoela enpresa esleipendunen adostasuna, ez dago arazorik bideratzen ari den espedientean ageri diren kontratuak gauzatu arte kontratuak luzatzeko. Bideratzen ari den espediten berria esleitu arteko aparteko luzapena gehienez, urtebete, Basurtuko Ospitaleko Zuzendaritza Ekonomiko eta Finantzarioak proposatua, indarrean dagoen legediak aurreikusten eta onartzen du, administrazio egokiaren eta eraginkortasunaren printzipioekin bat dator eta interes publikoa asebetetzen du (kontratua bera justifikatu zuten beharrak)."

39 espedientean, kontratazio-espediten horri zegokion hasierako kontratua 2007ko azaroan sinatu zen bi urterako, eta gehienez beste urtebetez luza zitekeen. Aurreikusi bezala, lehen luzapena urtebeterako sinatu zen 2009ko azaroan, eta bigarrena, urtebeterako hori ere, 2010eko azaroan. Azkenik, 2010eko azaroan, aparteko luzapen bat sinatu zen espediten berria bideratu arte, gehienez beste urtebeterako; Kontratazio Mahaiaren idazkariak 2010eko urriaren 26ko datarekin egindako txosten juridikoan aldeko informazioa eman zuen:



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

"kontuan hartuta Basurtuko Unibertsitate Ospitaleko hemodialisirako materiala hornitzeko espediente berria egitea konplexua dela eta beharrezkoa dela hornidura horiekin jarraitzea, espediente berriaren izapideak amaitzeko eta indarrean jartzeko denbora emateko helburuarekin nahitaezkoa da luzapen bat ematea, harik eta Basurtuko Unibertsitate Ospitaleko funtzionamendurako kontratu berri bat sinatu arte (gehienez, beste urtebeterako), kontratua ez edukitzeak ospitaleari oztopo edo kalte larririk ez eragiteko; kontuan hartuta espedientean jasota dagoela enpresa esleipendunen adostasuna, ez dago arazorik bideratzen ari den espedientean ageri diren kontratuak gauzatu arte kontratuak luzatzeko. Bideratzen ari den espediente berria, Basurtuko Unibertsitate Ospitalekoa zein zentralizatua, ebatzi arteko aparteko luzapena gehienez, urtebete, Basurtuko Ospitaleko Zuzendaritza Ekonomiko eta Finantzarioak proposatua, indarrean dagoen legediak aurreikusten eta onartzen du, administrazio egokiaren eta eraginkortasunaren printzipioekin bat dator eta interes publikoa asebetetzen du (kontratua bera justifikatu zuten beharrak)."

41 espedientean, kontratazio-espediente horri zegokion hasierako kontratua 2008ko abenduaren 1ean sinatu zen bi urterako, eta gehienez beste bi urterako luza zitekeen.

Lehen luzapena, bi urtekoa, 2010eko azaroan sinatu zen. 2012ko azaroan aparteko luzapen bat sinatu zen bideratu beharreko espediente berria bideratu arte, gehienez urtebetekoa, Kontratazio Mahaiaren idazkariak 2012ko azaroaren 22an horren inguruan emandako aldeko txosten juridikoarekin bat eginik. Txostenaren arabera *"agerikoa da espedienteari dagokion garbiketa-zerbitzu jarraitua bermatzeko interes publikoa, behar bezalako asistentzia-jarduera bermatzeko. Beraz, eta kontuan hartuta espediente berria egitea konplexua dela eta beharrezkoa dela zerbitzua ematen jarraitzea, espediente berriaren izapideak amaitzeko eta indarrean jartzeko denbora emateko helburuarekin nahitaezkoa da luzapen bat ematea, harik eta Basurtuko Unibertsitate Ospitaleko funtzionamendurako kontratu berri bat sinatu arte, kontratua ez edukitzeak ospitaleari oztopo edo kalte larririk ez eragiteko; kontuan hartuta espedientean jasota dagoela enpresa esleipendunen adostasuna, ez dago arazorik abiarazi nahi den espedientean ageri den kontratua gauzatu arte kontratua luzatzeko. Izapidetu beharreko espediente berria esleitu arteko edo urtebeteko aparteko luzapena, Basurtuko Unibertsitate Ospitaleko Zuzendaritza Ekonomiko eta Finantzarioak proposatua, indarrean dagoen legediak aurreikusten eta onartzen du, administrazio egokiaren eta eraginkortasunaren printzipioekin bat dator eta interes publikoa asebetetzen du (kontratua bera justifikatu zuten beharrak)."*

44 espedientean, 2010eko apirilean amaitu zen exekuzio-epea. Kontratu berria 2010eko irailaren 1ean sartu zen indarrean, beste enpresa batekin; beraz, estaldura jarraitua behar duen garbiketa-zerbitzu bati dagokionez, nahitaezkoa izan zen aurreko espedientearen aparteko luzapena gauzatzea, kontratua amaitu eta kontratu berria behin betiko esleitu arteko bost hilabetez.



45 espedienteari dagokionez, Donostia Ospitaleak SPKLren 279. artikularen (gaur TRLCSPren 303 artikulua denaren) okerreko interpretazioa egin du 2011 arte; izan ere, ospitale horrek ez du baturen guztizko osoa "banan-banan edo denak batera" hartu, baizik eta luzapen guztien batura dena batera hartu du 6 urteko gehienezko epe batekin. Errorrea hauteman bezain laster, espedienteak artikulua horren arabera bideratu ziren.

49 espedienteari dagokionez, behar berriak, prozeduraren konplexutasuna eta bete beharreko argitalpen-epeak kontuan hartuta, espero zen kontratazio-espediente berri bati zegokion kontratua behar zen datan gauzatu ez egotea; beraz, beharrezkoa izan zen denbora-tarte hori hartuko zuen aparteko luzapen bat ematea, esleipen berri bat izan arte (2012ko abenduan izan zen).

51 espedientean, zerbitzu horren luzapenek legezko mugak gainditu zituzten, kontuan hartuta zenbait osasun-zentrotarako ikuztegi-zerbitzu bat kontratatzeke prozesua abiarazi behar zuela Erakunde Zentralak. Hori dela eta, eta kontratazio-prozedura berri bat abiarazteak zalantzak eragiten zituenez, agian ez baitzen baliozkoa, lehendik zegoen kontratua luzatzea erabaki zen, baina ez zen horrelakorik aipatu luzapenaren memorian. Azkenik, espediente berri bat abiarazi zen egoera argitzean; izan ere, espedienteak zentralizatzeko proiektua atzeratzeko arriskua zegoen, eta kontratu berria egoera horren arabera izango zen. Hala, G/206/20/1/0290/O131/0000/012011 kontratazio-espediente berriaren memorian, hau aurreikusi da:

“Zerbitzu hau zenbait ospitaletarako kontratu zentralizatu baten bidez kontratatzea aurreikusi denez, ospitale honetarako beharrezkoa da zerbitzu hori kontratatzea mihiseria garbiketa- eta desinfekzio-kondizio egokietan mantentzeko, behin-behinekoz, kontratu zentralizatuaren esleipena gauzatu arte; beraz, behin-behinekotasun hori esleipendun gertatzen denarekin sinatzen den kontratuan jaso behar da, kontratuaren ebazpen-baldintza gisa.

52 espedienteari dagokionez, Txagorritxuko Ospitalea Santiago Ospitalearekin bateratzeko asmoa dela eta —Arabako Unibertsitate Ospitalea sortzeko—, beharrezkoa izan zen, kasu jakin batzuetan, kontratu hori legezko muga baino gehiago luzatzea espedienteak bateratzeko; izan ere, nolabait esateko, ospitale horietan kontratazioen *tempoa* ez zen aldi berean amaitzen eta, hala, kontratazio-sistema bikoitz bat behar genuen izan. Hori eragozten zen bi egoitzetako kontratuak aldi berean amaiarazten baziren, luzapen jakin batzuk legezko muga baino gehiago luzatuz; hala, kontratazio-espediente bakar bat egin zitekeen Arabako Unibertsitate Ospitale osorako, horrek eragiten duen interes publikoa eta administrazio publiko osoak baliabideen kudeaketan izan behar duen eraginkortasuna direla eta.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

54 espedienteari dagokionez, eta aurreikusita kontratazio-espeditente honetan sartzen ziren material batzuk, hala nola *stent koronario estaldurarik gabeak eta kateter baloiak*, kontratazio zentralizatukotzat jo zitezkeela (azkenean, halaxe izan ziren bakoitza une batean), kontratazio-espeditente berri baten hasiera atzeratu behar izan zen eta luzapenak luzatu behar izan ziren ez baitzegoen argi, une haietan, egoera hori beteko zen, eta, beraz, itxaron behar izan zen, espedientean zatiketarik gerta ez zedin.

55 espedientean, aurreko kasuaren gauza bera gertatu zen, espeditente honetan jasotako eta kontratazio zentralizatukotzat joko ziren *taupada-markagailuei eta desfibriladore ezargarriei* dagokienez; horrek guztiak azaltzen du, beraz, luzapenak legezko mugak baino gehiago luzatzea.

4. Ez da egiaztatu ba ote dagoen prozedura negoziatua eskusibotasunez erabil daitekeen kasurik 7,2 milioi euroan esleitutako 8 hornidura-espeditentetan eta 7 zerbitzu-espeditentetan (SPKLren 154.d, 155.b, 157.c eta 158.b eta c art.) (59, 60, 64, 73, 74, 78, 81, 82, 85, 86, 87, 91, 94, 102 eta 103 espeditenteak).

ALEGAZIOAK

59, 60, 64, 73, 74, 78, 81, 82, 85, 86, 87, 91, 94, 102 eta 103 ESPEDIENTEAK

59 espedienteari dagokionez, agerian utzi behar da 2007ko azaroan Osakidetzak espeditente bat jarri zuela martxan "Osakidetzako erradiologia-zerbitzuetarako ahots-ezagutzako sistema baten hornidurarako" (Esp.: G/140/20/0/1129/O001/0000/062007), Philips Ibérica, S.A. enpresari esleitu zitzaiola eta konpainia horren SpeechMagic produkturako lizentziak eskuratuz gauzatu zela.

Espeditente horrentzat egindako txosten teknikoan zehazten da zer arrazoi teknikoren arabera asebetetzen dituen Speechmagic softwareak ahots-ezagutzako beharrak beste lizitatzailleek baino hobeto, eta nola homologatzen den irtenbide hori Osakidetzan.

SpeechMagic-en lizentziatzeko moduari dagokionez, adierazi behar da produktuaren erabiltzaile izendatu bakoitzeko lizentziak ematen dituela. Hori dela eta, hau adierazi behar da:

- 2007ko espedientean, 160 lizentzia (erabiltzaile) eskuratu ziren, eta horri esker ahots-ezagutza erradiologiaren esparruan bakarrik zabaltzeko aukera dugu.
- 2010eko espedientean, 616 lizentzia eskuratu ziren, lizentzia gehigarriak, eta sareko gainerako espezialitateetara zabaldu ziren.

SpeechMagic produktua bi enpresa desberdini erosteari dagokionez, adierazi behar da 2008ko urrian Philips Ibericak (2007ko espedientearen esleipendunak) NuanceCommunication enpresari saldu ziola SpeechMagic produktua (2010eko espedientearen esleipendunari), eta, hala, Nuance bihurtu zen produktuaren jabe eta banatzaile bakar.



Hori guztia NuanceCommunication-en web-orrian egiazta daiteke, 2008ko urriaren leko Newsletter-ean (http://www.nuance.com/news/pressreleases/2008/20081001_philips.asp):

“Nuance Acquires Philips Speech Recognition Systems, Expands European Healthcare Business

Nuance’s Healthcare Business in North America and Europe Projected to Deliver Revenues in Excess of \$410 Million with Rapid Expansion of Operating Margins in Fiscal Year 2009

BURLINGTON, MA, October 1, 2008 — *Nuance Communications, Inc. (NASDAQ: NUAN) today announced that it has acquired Philips Speech Recognition Systems (PSRS), a business unit of Royal Philips Electronics (AEX: PHI, NYSE: PHG) and leader in speech recognition solutions, especially in the European healthcare market. With the combined resources of Nuance and PSRS, Nuance significantly enhances its ability to deliver innovative, speech-driven clinical documentation and communication solutions to healthcare organizations throughout Europe.* “

Esklusibitatea justifikatzen duen memoriaren kopia atxikita doa, bai eta esklusibitatea ziurtatzen duen enpresaren dokumentua ere. 1-2 dok.

60 espedientean jaso dago esklusibitatea justifikatzen duen ziurtapen-dokumentazioa.

Esklusibitatea justifikatzen duen memoriaren kopia atxikita doa, bai eta esklusibitatea ziurtatzen duen enpresaren dokumentua ere.

Ikusi erantsitako dokumentazioa: 3-4 dokumentuak

64 espedientean, adierazi behar da 2008ko abuztuan abiarazi zela G/160/20/0/1295/OSC1/0000/082008 espedientea, LEHIAKETA PUBLIKOaren prozedura bidez, "Osakidetzako Ospitaleetarako Sukaldea eta kartako menuak kudeatzeko multzo komertzial bat eskuratzeko eta ezartzeko", eta Dominion Tecnologías, S.L.U. enpresari esleitu zitzaion, Dietools produktuarekin.

Espediente horrentzat egindako txosten teknikoan zehazten da zer arrazoi teknikoren arabera asebetetzen dituen Dietools softwareak zentroetako dietetika eta nutrizioaren kudeaketaren beharrak beste lizitatzailleek baino hobeto, eta nola homologatzen den irtenbide hori Osakidetzan ospitale guztietarako. Espedientean bertan jaso dago esklusibitatea justifikatzen duen ziurtapen-dokumentazioa.

Esklusibitatea justifikatzen duen memoriaren kopia atxikita doa, bai eta esklusibitatea ziurtatzen duen enpresaren dokumentua ere.

Ikusi erantsitako dokumentazioa: 5-6 dokumentuak

73 eta 74 ESP.

73 eta 74 espedienteetan, beti sartu da esklusibitatearen justifikazioa espedientea bultzatu duen unitateak egindako memorian; askotan, gainera, baldintza teknikoan orrian ere



justifikatzen da. Ez dugu aurkitu hori eragozten duen legezko araurik ezta dokumentazio jakinen bat (ziurtapenak eta abar) eskatzen duenik ere. Nolanahi ere, aintzat hartzen dugu eskusibitatea xeheago, ziurtapenak edota bestelako dokumentazioa emanez, dokumentatzeko gomendioa.

78 eta 81 espedienteetan, adierazi behar da SPKLren 154.d) artikuluan ezartzen duela arrazoi teknikoak badirenean kontratua enpresaburu jakin baten esku bakarrik utz daitekeela. Kasu horretan, badira hautatutako prozedura bermatzen duten arrazoi teknikoak; izan ere, espedienteari dagokion mantentze-lanen konplexutasuna dela eta, langile oso trebatuak eta enpresak berak prestatuak behar dira, zerbitzuaren martxa onari eragin diezaioketen distortsioak saihesteko.

82 eta 85 espedienteetan, espedienteen sartuta dagoen eskusibitatearen justifikazioa Institutuko zuzendari zientifikoak sinatutako nahitaezko memorian jasoa dago, eta han ageri da kontratazio hau eskusibitate bidezko prozedura negoziatu bidez egiteko arrazoia eta oinarria.

86 eta 87 espedienteetara dagokienez, adierazi behar da ekipoen mantentze-lanak ekipo horien titular den enpresak egin behar dituela derrigor, hark bakarrik eman baitezake zerbitzua bere ordezkariak, langileak eta abar baititu.

91 espedienteetan, bertan sartuta dagoen eskusibitatearen justifikazioa nahitaez aurkeztu beharreko memorian jasoa dago, eta han ageri da kontratazio hau eskusibitate bidezko prozedura negoziatu bidez egiteko arrazoia eta oinarria. Kasu honetan, enpresa horrek baino ez du eskaintzen Ospitaleak eskuratu nahi duen produktua.

94 espedienteetan, bertan sartuta dagoen eskusibitatearen justifikazioa nahitaez aurkeztu beharreko memorian jasoa dago, eta han ageri da kontratazio hau eskusibitate bidezko prozedura negoziatu bidez egiteko arrazoia eta oinarria.

102 espedienteari dagokionez, adierazi behar da espediente honek lehenago egindako prozedura negoziatu batean duela jatorria (G/130/10/0/0593/O131/0000/022010); prozedura hartan, hiru etxe komertzialak egin zitzaizkien gonbita erradiologia konbentzionaleko gela bat hornitzeko, eta Elesen, S.L. enpresari esleitu zitzaion. Eztabaidagai dugun kontratua espediente horren osagarri da ekipamendua osatzeko beharra hauteman baitzen aurrerago; beraz, nahitaezkoa zen haien arteko bateragarritasun handiena bermatzea, eta, hala, etxe komertzial berberari esleitu zitzaion, hura baitzen banatzaile bakarra.

Espediente horretako memorian azaldu zenez:



Espediente honen helburua da garai batean erositako ekipamendua (*Polyrad Premium Advanced TPC* modeloko mahai zutabeduneko sistema bat, Radiología, S.A.k eraikia (Sedecal, S.A.)) osatzea, Olagibeleko Anbulatorioko Erradiologia Konbentzionaleko 3. gelaren digitalizazioa lortzeko behar den materiala erosiz.

Lehendik zegoen ekipamenduaren ezaugarriei erreparatuz, eta bateragarritasun-arazoak saihesteko, beharrezkoa da hornitu beharreko materialak lehengo gelarekin erabateko integrazioa lortzeko behar dituen osagarri eta konexio-gailu edo -elementu guztiak izatea, behar bezala funtziona dezan guztiak; beraz, jatorrizko ekipamenduaren fabrikatzailearenak berarenak behar dute izan.

Lehendik dagoen eta irtenbidea integratu behar zaion ekipamendua Radiología, S.A. (Sedecal, S.A.) enpresarena da, eta *Elesen, S.L.* da EAEn Radiología, S.A. (Sedecal, S.A.) enpresaren produktuen banatzaile eskusiboa."

Hori dela eta, uste dugu kasu hau SPKLren 157.c artikuluan jasotako kasuetako bat dela.

103 espedientean, lehendik zegoen ekipamendua zabaldu nahi zen, lanpostuak ugaritzen baitziren eta, beraz, ekipamenduen enpresa hornitzaile bera behar zen. Memorian behar bezala justifikatuta zegoen:

"Erradiologia Zerbitzuak SomatomDefinition+ modeloko SCANNER bat eta ArtisdTA modeloko ANGIOGRAFO bat ditu, Siemens S.A. enpresakoak biak; gaur egun, lan-estazio bakar batean daude, eta hara jo behar dute erradiologo guztiek prozesuen osteko azterketak egitera: angioTC koronarioak eta bihotzekoak, angio TC baskularra, kolonoskopia birtuala, 2D eta 3D-ko berreraikuntza erradiologikoak, eta abar.

Erradiologia Zerbitzuko lanpostuak ugaritu behar zirenez, eta aldi berean hiru erabiltzailek sartzeko aukera izango zutenez, eskatutako azterketen erantzun-denbora hobetzeko lan-estazio berri bat erosi behar da: irudien bistaratze aurreraturako egokia den software bat duena eta erabiltzaileari teknika erradiologiko desberdinen azterketak egiteko aukera emango diona, CT eta angiografia digitala barne, ekipoeekin ezin hobetuzko bateragarritasun-kondizioetan.

Adierazitako ekipoen (SomatomDefinition+ modeloko SCANNER bat eta ArtisdTA modeloko ANGIOGRAFO bat) ezaugarriak kontuan izanik eta bateragarritasun-arazoak saihesteko eta behar bezala funtzionatzeko, erosi beharreko lan-estazioak "SyngoVia" izenekoa izan behar du, "Syngo" softwarea duena, jatorrizko ekipoen fabrikatzaile berekoa.

Lehendik dagoen eta irtenbidea integratu behar zaio ekipamendua Siemens, S.A. enpresarena da."

Hori dela eta, uste dugu kasu hau SPKLren 157.c artikuluan jasotako kasuetako bat dela.

5. Esleipena ez da behar bezala arrazoitzen edo ez dira baldintza-orrietan aurreikusitako irizpideak erabiltzen edo baldintza-orrietan aurreikusten ez den haztaperen batekin erabiltzen dira 38,3 milioi euroan esleitutako lan-espediente batean, 8 hornidura-espedientetan, 3 zerbitzu-espedientetan eta espediente misto



batean (SPKLren 134. eta 135. art.) (57, 65, 67, 68, 71, 72, 77, 79, 83, 84, 89, 92 eta 93 espedienteak).

ALEGAZIOAK

57, 65, 67, 68, 71, 72, 77, 79, 83, 84, 89, 92 eta 93 ESPEDIENTEAK

57 espedientearen, uste dugu esleipen-txostena behar bezala justifikatuta dagoela. Begibistakoa da hori; izan ere, esleipendun izan ez diren lizitatuzaileak beren eskaintzaren emaitzari buruz hitz egitera etorri direnean batere arazorik gabe ulertu dute txostenean jaso den azalpena.

Bestalde, irizpide hori baloratzeko modua obra-motaren arabera alda daiteke, obra-motaren arabera (beste zerbitzu batzuk ukitzen dituzten konponketak, instalazio berriko obrak) balio gehiago ematen baitzaie alderdi batzuei besteei baino.

Obrak inguruan dituen ondorioei dagokienez, lizitatuzaileak azterketaren bat egin duen baloratu da, bideragarria izateaz gainera egin behar den obraren azterketa-maila baloratzeko aukera ematen baitu. Baina ez da pentsatu behar ezarpen-aukera bakarra baino ez dagoenik.

Zenbait aukera izan daitezke, baliagarriak guztiak ere, eta haiek erabiltzea ez dago Osakidetzaren esku.

65, 67 eta 68 espedientei dagokienez, esleipena arrazoitzen duen txosten teknikoak puntuazio global bat jasotzen du onartutako eskaintza bakoitzeko, oinarri teknikoaren baldintza-orrian oinarrituta; oinarri teknikoaren baldintza-orriak lote eta gai bakoitzarentzat definitu beharreko ezaugarri teknikoak ezartzen ditu, xeheki adieraziak, eta Batzorde Tekniko Aholkulariak egiten duen analisiaren oinarria dira. Puntuazio hori, kontratazio-organoari aholku ematen dioten aditu teknikoaren batzordeak emanikoa, lizitatuzaileek aurkeztutako eskaintza bakoitzak lortutako haztapena da, kontuan hartu ondoren gai eta/edo lote bakoitzari oinarri teknikoaren baldintza-orrian esleitu zaizkion ezaugarri teknikoak, horietan erabili baitira eskaintza abantailatsuen esleitzeko oinarri gisa.

Lizitatuzaileek, beraz, badakite zertan oinarritu den kontratazio-organoa oinarri teknikoaren baldintza-orrian argi eta garbi adierazitako "kalitate tekniko"aren epai-irizpideak baloratzeko.

Espediente bakoitzean ezarritako irizpideen hautaketa behar bezala justifikatuta dago; izan ere, irizpideok kontratuaren helburuaren ezaugarriak kontuan hartuta zehaztu behar dira, produktuaren edo zerbitzuaren ezaugarri intrintsekoak baloratu, abantaila handieneko eskaintza lortzeko.

Alegazioa ez da zuzena. Txosten teknikoan, espedientearen ezaugarri teknikoetan definitutako atributuak aztertzen dira, berriaz zenbakituta. Enpresa guztien dokumentazio teknikoak ebaluatuta, jotzen da espedientearen oinarrietan ezarritako mugak ez direla, oro har, behar bestekoak.

Hain zuzen ere, onartutako eskaintza bakoitzaren puntuazio globala eta lizitazioaren helburu diren gai eta/edo lote bakoitzagatik dagokion puntuazioa jasotzen da esleipena arrazoitzen duen txosten teknikoan. Batzorde Tekniko Aholkulariak zenbait zerbitzu-



erakundetako baliabide materialen arduradunenez osatutako organoa eskaintzekin egindako azterketa xehe eta sakonaren ondorioz lortzen da puntuazio hori.

Eskaintza bakoitzari emandako amaierako puntuazioa karatulan ageri diren esleipen-irizpideak dagokien haztapenaren arabera aplikatzearen emaitza da. Azkenean, ekonomikoki eta teknikoki abantaila gehien dituzten eskaintzen esleipena proposatzen da.

71, 72, 77, 79, 83, 84, 89, 92 eta 93 espedientei dagokienez, adierazi behar da esleipena arrazoitzen duen txosten teknikoan jasota dagoela onartutako eskaintza bakoitzaren puntuazio globala eta lizitazioaren helburu diren gai eta/edo lote bakoitzaren puntuazioa. Puntuazio hori aurkeztutako eskaintza guztien azterketa xehatu eta sakon baten ondorioa da. Eskaintza bakoitzari emandako amaierako puntuazioa karatulan ageri diren esleipen-irizpideak dagokien haztapenaren arabera aplikatzearen emaitza da. Azkenean, ekonomikoki eta teknikoki abantaila gehien dituzten eskaintzen esleipena proposatzen da.

Are gehiago, eskatzen duten enpresa guztiei erantzun pertsonalizatu bat emateaz gainera, egindako txosten guztiak espedientearen sartuta daude kontsultagai, eta, hala, arrazoitzeko betebeharra beteta geratzen da.

6.8,3 milioi euroan esleitutako 6 hornidura-espedienteren eta zerbitzu-espediente baten luzapenek hasierako aurrekontuak % 30 baino gehiago handitzeko moduko aldaketak izan dituzte, eta horrek SPKLn jasotako lizitazio-printzipioak urratzea dakar (SPKLren 23.2 art.) (27, 29, 30, 33, 36, 37 eta 55 espedienteak).

ALEGAZIOAK

27, 29, 30, 33, 36, 37 eta 55 ESPEDIENTEAK

27, 29, 30, 33, 36 eta 37 espedienteetan, esku-hartzeen kopurua handitu egin da; horrek zerbitzuaren beharrak handitu ditu, eta baita hasieran aurreikusitako aurrekontua ere; beraz, kontratua aldatu behar izan zen. Kasu honetan, begien bistakoa zen interes publikoa, espediente hauei dagokien material suntsigarriaren hornidura jarraitua bermatu behar baitzen, asistentzia-jarduera behar bezala emateko eta zerbitzua ematen jarraitzeko, material suntsigarririk ezak zerbitzua eten ez zezan edo zerbitzuari kalte larririk eragin ez ziezaion. Horregatik, administrazio egokiaren eta eraginkortasunaren printzipioei egokitutako aldaketa gauzatu zen, horri zegokion interes publikoa betetzen baitzuen, alegia, kontratua justifikatzen zuten beharrak betetzen baitzuten.

55 espedienteari dagokionez, Cardiva, SLri esleitutako hasierako aurrekontua 1.829.669,36 eurokoa zen; azken luzapenarekin handitutako aurrekontua, berriz, 2.229.669,36 eurokoa, hau da, % 21,86 handitu zen.

Biotronik, S.A.ren lehen aurrekontua 412.333,57 eurokoa izan zen, eta azken luzapenean kantitate bera esleitu zitzaion, alegia, ez zen batere handitu.



Guidant, S.A.ri dagokionez gero Boston Scientific Ibérica, S.A., hasieran 44.164,49 euroko kontratua egin zen, eta zenbateko bera mantendu zen azken luzapenean.

Gauza bera gertatu zen MAC, S.A. eta Sorin, S.A.rekin: 27.286,00 euro eta 33.210,05 euro, hurrenez hurren.

Beraz, espedientea osorik hartzen badugu, % 17,04 baino ez da handitu.

7.106.207 euroko lote baten heren bat baldintza-orrietan ezarritako zehaztapen teknikoak betetzen ez dituen lizitatzailer bati esleitu zaio, 522.323 euroan esleitutako hemodialisi-materiala hornitzeko espediente batean (SPKLren 144. art.) (76 espedientea).

ALEGAZIOAK

76 ESPEDIENTEA

GAMBRORI "Iragazkortasun txikiko dialisia" 1 lotearen herena esleitu zitzaion, 106.207 -an, eta horri buruz ari da. Balorazioaren txosten teknikoa ikusirik, ez dugu inolako aipamenik aurkitu oinarri teknikoak betetzen ez dituenik; are gehiago, balorazioa positiboa da, eta 30etik 23 puntu lortzen ditu. Aitzitik, Fresenius-ek aurkeztutako eskaintzak ez ditu betetzen oinarri teknikoak, eta, horregatik, gutxienekoa gainditzen ez duen puntuazioa lortzen du. Dokumentuak doaz honi erantsita.

Ikusi erantsitako dokumentazioa (7-8 dokumentuak)

8. Osakidetzako zentroek hainbat produktu eta ondasun higigarriren erosketak izapidetu dituzte kontratu txiki gisa. Erosketa horietan, nolana ere, kontratatuaren xedea zatikatu dute, eta, horrenbestez, urratu egin dute publizitate-eta lehiaketa-printzipioa. Medikamentuen kasuan, gorabehera hori 61 milioi euroren erosketetan antzeman da aztertutako 80,1 milioi euroetatik. Gainerako horniduretan ikusi da 70,6 milioi euroren erosketak egin direla kontratazio-espedienterik gabe, eta egiaztatu da kasuen % 73,9an (52,2 milioi euro) zatikatu egin dela produktu homogeneoen erosketa (IKUSI A.5)

ALEGAZIOAK

Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren 2010eko txostenak diotenaren arabera, medikamentuen 2010eko gastu osoari dagokion 205.673 mila euroko zenbatekotik 80.105 mila euro izapidetu dira guztira zuzeneko eskaeren bidez. Hortik ondorioztatzen da 125.568 mila euro, hau da, farmazia-gastuaren % 61 indarrean dagoen kontratu zentralizatu batek babesten duela. Txostenaren arabera, kontratu txikien bidez 60.991 mila euro izapidetu dira legea bete gabe.

Argitu behar da, hala ere, zuzeneko eskaera gisa guztira izapidetu diren 80.105 mila euroen artean badirela indarrean dagoen kontratu baten bidez legezkatutako zuzeneko eskaera batzuk, eta txosten honetan zehaztuko ditugu.

Medikamentuei dagokien zenbatekoa 24.000 eurotik gorakoa izanik 2010eko sisteman zuzeneko eskaera gisa sartu diren sistema ekonomiko-finantzarioko materialen SAP kodeak aztertu ondoren, ikusi da hainbat arrazoi daudela zuzeneko eskaerak, indarreko kontratuekin edo kontraturik gabe, egiteko. Hona hemen arrazoi horiek laburbilduta:

1. Espedienteak ireki aurretik negoziazioak izan dira kontrataziorako baldintza tekniko, ekonomiko eta logistiko eraginkorrenak finkatzeko.
2. Hasitako kontratazio-espeditenteak epe barruan bidali zaizkio Osasun eta Kontsumoko Sailaren Gobernu Kontseiluari.
3. Merkatuak ez die espeditentearen lizitazio-baldintzei ondo erantzun.
4. Zerbitzu-erakundeek zuzenean eskatu dituzte, baina badute kontratu bat indarrean.
 - 4.1. Medikamentuak erosteko prezioen murrizketari buruzko 8/2010 LEDa indarrean sartzea
 - 4.2. Lagapenak, bat-egiteak, xurgapenak, izendapen-aldaketa, etab.
 - 4.3. Medikamentu batzuen kontratua indarrean egon da 2010ean zehar, baina, gero, aurkezpen edo forma farmazeutikoa aldatu dute, eta kontratuan jasotzea luzatu egin da denboran.
5. Beste arrazoi batzuk.
 - 5.1. Medikamentu batzuek ez dute kontraturik izan indarrean 2010 osoan, baina urte horretan ekin zaie kontratazio-espeditenteei; ondorioz, batzuk 2010ean esleitu dira, eta beste batzuk, 2011n.
 - 5.2. Merkatuan agertzen diren medikamentu berriak.

1. Espedienteak ireki aurretik negoziazioak izan dira kontrataziorako baldintza tekniko, ekonomiko eta logistiko eraginkorrenak finkatzeko.

Medikamentuei dagokien zenbatekoa 24.000tik gorakoa izanik 2010eko sisteman zuzeneko eskaera gisa sartu diren 60,99 milioi euroetatik % 26, hau da, 16,08 milioi euro, daude arrazoibide honetan. Hemen aipatu dugun arrazoiak honako osagai hauek dituzten medikamentuei eragiten die:

VIII. birkonbinazio-faktorea (ADVATE)

- Hazkundearen hormona (SAIZEN, HUMATROPE, NORDITROPIN, GENOTONORN eta HUMATROPE).
- Filgrastima eta pegfilgrastima (NEUPOGEN eta NEULASTA)
- Eritropoiesiaren faktore estimulatzaileak (ARANESP)
- Adalimumaba (HUMIRA)
- Albuminaren zatikapena (GAMMAGARD eta FLEBOGRAF)
- Pisu molekular baxuko heparinak (CLEXANE)
- Dozetaxela (TAXOTERE)



- Meronema (MEROPENEM)

Negoiazio horietako asko luzatu egin dira arrazoi hauetako batengatik:

- Zailtasun teknikoa oso handia da, eta, kasu askotan, aurretiazko posizionamendu terapeutiko bat eskatzen dute.
- Jatorrizko medikamentuek eksklusibitatea galdu ondoren farmazia-espezialitate generikoak (EFG) agertu dira. EFG formen merkaturatzea zehatz-mehatz aztertzea komeni da, batez ere alderdi teknikoei dagokienez.

Hobekuntza-ekintza hauek bideratu dira medikamentu horiek kontratatzeko:

Medikamentu bakoitzaren kontratazio zentralizatuaren egungo egoera:

- VIII. birkonbinazio-faktorea (ADVATE): 2011ko uztailaren 18an formalizatu zen kontratua.
- Hazkundearen hormona (SAIZEN, HUMATROPE, NORDITROPIN, GENOTONORN eta HUMATROPE): 2011ko ekainaren 24an hasi zen espedientea.
- Filgrastima eta pegfilgrastima (NEUPOGEN eta NEULASTA): 2011ko abuztuaren 3an formalizatu zen kontratua.
- Eritropoiesiaren faktore estimulatzaileak (ARANESP): 2011ko uztailaren 27an formalizatu zen kontratua.
- Adalimumaba (HUMIRA): Honen kontratazioa jasotzen duen espedientean, hanturazko prozesu kronikoak tratatzeko medikamentu biologiko guztiak sartzen dira. 2012ko urtarrilaren 11n formalizatu zen kontratua.
- Pisu molekular baxuko heparinak (CLEXANE): 2011ko otsailaren 8an sinatu zen kontratua.
- Dozetaxela (TAXOTERE): 2011ko uztailaren 4an sinatu zen kontratua.
- Meronema (MEROPENEM): 2011ko uztailaren 4an hasi zen espedientea.
- 2012ko uztailaren 31n, immunoglobulina ez-espezifikokoak (GAMMAGARD eta FLEBOGRAF) hornitzeko kontratu bat sinatu zen.

2. Hasitako kontratazio-espedienteak epe barruan bidali zaizkio Osasun eta Kontsumoko Sailaren Gobernu Kontseiluari.

Medikamentuei dagokien zenbatekoa 24.000tik gorakoa izanik 2010eko sisteman zuzeneko eskaera gisa sartu diren 60,99 milioi euroetatik % 13 inguru, hau da, 7,81 milioi euro, daude arrazoibide honetan.

Arrazoibide honek bi medikamenturi eragiten die: ENBREL eta AVASTIN. 2010eko urtarrilean hasi ziren espediente biak. Hala ere, Osasun eta Kontsumo Sailaren Gobernu Kontseilura bidali ziren onespena jasotzeko, eta horregatik ezinezkoa izan da 2010ean zehar esleitzea.

Gobernu Kontseiluaren erantzuna iritsi aurretik eta Erosketa, Obra eta Zerbitzu Estrategikoetako Zuzendariordetzari kontsulta egin eta haren baieztapena jaso ondoren,



honako hobekuntza-ekintza hauek bideratu dira medikamentu bakoitzaren kontratazioa egin ahal izateko:

Medikamentu bakoitzaren kontratazio zentralizatuaren egungo egoera:

- ENBREL. Honen kontratazioa jasotzen duen espedientean, hanturazko prozesu kronikoak tratatzeko medikamentu biologiko guztiak sartzen dira. 2012ko urtarrilaren 11n formalizatu zen kontratua.
- AVASTIN: 2011ko irailaren 29an formalizatu zen hornidura-kontratua.

3. Merkatuak ez die espedientearen lizitazio-baldintzei ondo erantzun.

Medikamentuei dagokien zenbatekoa 24.000tik gorakoa izanik 2010eko sisteman zuzeneko eskaera gisa sartu diren 60,99 milioi euroetatik % 4 inguru, hau da, 2,70 milioi euro, daude arrazoibide honetan.

Arrazoibide honek fluidoterapian erabiltzen diren medikamentu eta osasun-produktu guztiei eta BENEFIX medikamentuari eragiten die.

Fluidoterapia kontratatzeke espedientea 2009ko maiatzean hasi zen, baina merkatuak negatiboki erantzun zien lizitazio-prezioei; beraz, uneko hornitzaileek erosketa-prezioari zegokion gehieneko prezioaren gainetik eskaini zuten medikamentua.

BENEFIX kontratatzeke espedientea 2009an hasi zen, baina esleitu gabe geratu zen lizitazio-prezioen gainetik egin zelako eskaintza.

Hobekuntza-ekintza hauek bideratu dira fluidoterapiaren eta BENEFIX medikamentuaren hornidura kontratatzeke:

FLUIDOTERAPIA: gaur egun kontrataziorako espediente berri bat diseinatzen ari dira eta aurreikusten da gehieneko ere 4 hilabeteko epe batean esleituko dela.

BENEFIX: 2011ko urtarrilaren 13an sinatu zen kontratua.

4. Zerbitzu-erakundeek zuzenean eskatu dituzte, baina badute kontratu bat indarrean.

4.1. Medikamentuak erosteko prezioen murrizketari buruzko 8/2010 LEDa indarrean sartu zen.

Medikamentuei dagokien zenbatekoa 24.000tik gorakoa izanik 2010eko sisteman zuzeneko eskaera gisa sartu diren 60,99 milioi euroetatik % 3 inguru, hau da, 1,84 milioi euro, daude arrazoibide honetan.

Egoera honetan dago NOVOSEVEN medikamentua. Medikamentu hau hornitzeko kontratazioa 2010eko otsailaren 2an esleitu zen. 8/2010 LEDa indarrean sartu zenean eta Zuzendari Nagusiaren Ebazpena aplikatuz, Osakidetzak ekainaren 1etik aurrera kontratu marko guztiei aplikatu zien kontratuan ezarritako prezioei zegokien murrizketa (kasu jakin honetan, % 2ko deskontua zuten lehendik aplikatua). Laborategi esleipendunaren aburuz, laborategiei saltzeko prezioari aplikatu behar zitzaion murrizketa, eta ez kontratuko prezioari. Hori dela eta, laborategiak Osakidetzari adierazi zion NOVOSEVEN medikamentua hornitzeari utziko ziola



baldin eta zerbitzu-erakundeek laborategiak uste zuen baino prezio baxuagoan egiten bazituzten eskaerak. Horrenbestez, era eskusiboan merkaturatzen den medikamentu bat denez, hornidura jarraitua bermatzeko eta interes publikoaren mesedetan, Osakidetza zentroei eskatu behar izan zien kontratu markotik kanpo egin zitzatela eskaerak.

Hobekuntza-ekintza hauek bideratu dira egoera hori konpontzeko:

2012ko abuztuaren 22an sinatu zen kontratua.

4.2. Lagapenak, bat-egiteak, xurgapenak, izendapen-aldaketa, etab.

2010ean kontratua indarrean izan duten medikamentuak dira, baina ezin izan da haien eskaera egin kontratu marko bidez, lagapenak edo bat-egiteak edo xurgapenak gertatu direlako enpresa esleipendunen artean edo izendapena aldatu dutelako, eta horrek ezinezko egin du kontratu markoa garaiz eguneratzea Aldabide-SAPen (REMICADE, KIVEXA, ECALTA eta TYGACIL medikamentuen kasuan da).

Medikamentuei dagokien zenbatekoa 24.000tik gorakoa izanik 2010eko sisteman zuzeneko eskaera gisa sartu diren 60,99 milioi euroetatik % 1 inguru, hau da, 0,46 milioi euro, daude arrazoibide honetan.

Hobekuntza-ekintza hauek bideratu dira egoera hori konpontzeko:

Gaur egun, izapidetze administratiboa konponduta dago.

4.3. Medikamentu batzuen kontratua indarrean egon da 2010ean zehar, baina, gero, aurkezpen edo forma farmazeutikoa aldatu dute, eta kontratuan jasotzea luzatu egin da denboran.

Medikamentuei dagokien zenbatekoa 24.000tik gorakoa izanik 2010eko sisteman zuzeneko eskaera gisa sartu diren 60,99 milioi euroetatik % 1 inguru, hau da, 0,46 milioi euro, daude arrazoibide honetan.

Egoera honetan dago PREZISTA medikamentua.

Hobekuntza-ekintza hauek bideratu dira egoera hori konpontzeko:

Gaur egun, izapidetze administratiboa konponduta dago.

Beraz, 4. puntuan aipatutako medikamentuen erosketa kontratu markotik kanpo egin bada ere, erosketa horiek Osakidetzaren eta laborategi esleipendunaren artean sinatu eta indarrean dagoen kontratu baten babesean egin dira.

Nolanahi ere, adierazitakoaz aparte, ezin da baieztatu ezen, medikamentu jakin batek kontratu markoa indarrean izan arren, zerbitzu-erakunderen batek ez zuela inolako justifikaziorik gabe eskaera kontratu markotik kanpo egingo.



5. Beste arrazoi batzuk

5.1. Medikamentu batzuek ez dute kontraturik izan indarrean 2010 osoan, baina urte horretan ekin zaie kontratazio-espeditenteei; ondorioz, batzuk 2010ean esleitu dira, eta beste batzuk, 2011n.

Medikamentuei dagokien zenbatekoa 24.000tik gorakoa izanik 2010eko sisteman zuzeneko eskaera gisa sartu diren 60,99 milioi euroetatik % 14 inguru, hau da, 8,73 milioi euro, daude arrazoibide honetan.

Arrazoibide honek medikamentu hauei eragiten die: REBIF, ALIMTA, AMBISOME, TRACLEER, BETAFERON, INVANZ, PROLASTINA, ANGIOX, ALBUNORM, THYROGEN eta AVONEX.

Hobekuntza-ekintza hauek bideratu dira egoera hori konpontzeko:

Konplexutasun tekniko txikia duten medikamentuen kasuan, kontratazio-espeditente bakarrean multzokatu dira. Horri esker, kontratazioa handiagoa izango da. Multzokatzeko eredu horrekin hasita daude dagoeneko.

5.2. Merkatuan agertzen diren medikamentu berriak.

Medikamentuei dagokien zenbatekoa 24.000tik gorakoa izanik 2010eko sisteman zuzeneko eskaera gisa sartu diren 60,99 milioi euroetatik % 1 inguru, hau da, 0,46 milioi euro, daude arrazoibide honetan.

Arrazoibide honek bi medikamenturi eragiten die: REVLIMID eta SOLIRIS.

Hobekuntza-ekintza hauek bideratu dira egoera hori konpontzeko:

Medikamentu bakoitzaren kontratazio zentralizatuaren egungo egoera:

- REVLIMID: 2012ko otsailaren 3an sinatu zen kontratua.
- SOLIRIS: 2011ko maiatzaren 5ean sinatu zen kontratua.

ONDORIOA: Medikamentuei dagokien zenbatekoa 24.000tik gorakoa izanik 2010eko sisteman zuzeneko eskaera gisa sartu diren 60,99 milioi euroetatik % 48 inguru, hau da, 29,35 milioi euro, daude 2010ean justifikatuta, dela negoziazio-prozesuengatik (% 26), dela Gobernu Kontseiluari bidalitako espeditenteengatik (% 13), dela merkatuak lizitazio-baldintzei ondo ez erantzuteagatik (% 4), dela kontratua indarrean izan arren zerbitzu-erakundeek eskaera zuzenak egin dituztelako (% 5). % 15, hau da, 9,19 milioi euro, aipatu diren beste arrazoi batzuegatik daude justifikatuta.

Medikamentuei dagokien zenbatekoa 24.000tik gorakoa izanik 2010eko sisteman zuzeneko eskaera gisa sartu diren 60,99 milioi euroetatik % 63 ingururen kontratazioan egin diren hobekuntza-ekintzen ondorioz, medikamentu horiek kontratatuta daude gaur egun edo izapidetze administratiboaren bidean daude. Horiek kontuan izanik, bete ez den kopurua 22,57 milioi euroan balioets daiteke gehienez ere, hau da, aztertutako 80.105 mila euroetatik % 28.

Bukatzeko, azpimarratu behar da 2010ean zehar 43 espeditente hasi zirela, 2009an baino gehiago (30).



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

III.2 KONTRATAZIOA

Aurreko ekitaldietan esleitu diren baina 2010ean aldatu, luzatu edo exekutatu diren 56 espedienteko lagin bat azertu dugu, 124,4 milioi eurokoa, eta, haiez gainera, ekitaldi horretan esleitu diren 47 kontratazio-espediente azertu ditugu, guztira 65,1 milioi eurokoak. A.5 eranskinen zehaztu da aztertutako espedienteen zerrenda.

III.2.1 AURREKO EKITALDIETAN ESLEITUTAKO ESPEDIENTEAK

Akats esanguratsu hauek antzeman dira:

- Hiru zerbitzu-espeditetan, prezioen berrikuspena egiten da, baina baldintza-orrietan ez da horretarako formularik edo indize ofizialik zehazten. Hiru espediente horiek (35, 41 eta 52) 26,4 milioi euroan esleitu dira (SPKL, 78.1 art.).

ALEGAZIOAK

35, 41 eta 52 ESPEDIENTEAK

35 espedientean, zehatz-mehatz esanda, prezio-berrikuspena baino gehiago kontratu-aldaketa egin da, PCAPren karatularen 11.1 puntuan zehatz jasota eta aurreikusita dagoenari jarraiki. Puntu horren asmo bakarra da garbiketaren kontratazioari dagokion hitzarmen kolektiboaren 21. artikulua betetzea da, eta, horrenbestez, Osakidetzako langileekiko homologazioa bermatzea. Asmo hori lortzeko, ez dago beste biderik. Beraz, alferrik litzateke beste formularen edo indizeren bat erabiltzea. Dokumentuak doaz honi erantsita.

Ikusi erantsitako dokumentazioa (9-11 dokumentuak)

41 espedientean, prezioak berrikusteko koefiziente bat aplikatu behar zaie berrikuspen-eskubidea duten prestazioen zenbateko likidoari. Berrikuspen-koefiziente hori, bestalde, formula edo indize baten emaitza haztatua da. Beraz, esan daiteke kontratazio-espediente honetan ez dela inolako prezio-berrikuspenik egin. Aitzitik, espedientearen exekuzioan ageri diren zenbatekoak hainbat aldaketa eta erregularizazio jarraitu egin izanaren emaitzak dira. Halaxe ikus daiteke Basurtuko Unibertsitate Ospitalearen zuzendari gerentearen 2011ko maiatzaren 20ko ebazpenean gai horri buruz ageri den zerrendan. Ebazpen horretan, onespina ematen zitzaion Garbaldi, S.A.L. enpresarekin "Basurtuko Unibertsitate Ospitalearen eta Txurdinagako osasun-zentroaren garbiketa-zerbitzua" eskaintzeko sinatutako kontratua aldatzeari:

- JATORRIZKO KONTRATUAREN DATUAK:

ZENBATEKOA GUZTIRA (% 16KO BEZA BARNE): 14.260.642,72 euro / 2 urte.

- LEHENENGO ERREGULARIZAZIOAREN DATUAK:

ZENBATEKOA (% 16KO BEZA BARNE): 198.277,05 euro / 12 hilabete.

ZENBATEKOA GUZTIRA (% 16KO BEZA BARNE): 14.458.919,77 euro / 2 urte.

- BIGARREN ERREGULARIZAZIOAREN DATUAK:



ZENBATEKOA (% 16KO BEZA BARNE): 181.753,99 euro / 11 hilabete (2010eko urtarriletik azarora)

ZENBATEKOA GUZTIRA (% 16KO BEZA BARNE): 14.640.673,76 euro / 2 urte.

- LEHENENGO ALDAKETAREN DATUAK (udako langile-murrizketa):

ZENBATEKOA (BEZA BARNE): -155.207,00 euro

ZENBATEKOA GUZTIRA (% 16KO BEZA BARNE 2010/07/1era arte): 14.485.466,76 euro / 2 urte.

ZENBATEKOA GUZTIRA (% 18KO BEZA BARNE 2010/07/1etik aurrera): 14.735.216,19 euro / 2 urte.

- BIGARREN ALDAKETAREN DATUAK (Aztarain pabilioia hilabetez garbitzeko luzapena):

ZENBATEKOA (% 18KO BEZA BARNE): 30.497,64 euro / 1 hilabete (2010eko azaroa)

KONTRATUAREN ZENBATEKOA GUZTIRA (% 18KO BEZA BARNE): 14.765.713,83 euro / 2 urte.

- LEHENENGO LUZAPENAREN ETA ALDAKETAREN DATUAK (Aztarain pabilioia 24 hilabetez garbitzeko lanak jasotzea + BEZa doitu ondoko erregularizazioa):

AZTARAINGO ZENBATEKOA (% 18KO BEZA BARNE): 701.445,72 euro / 2 urte

BEZA DOITZEAGATIKO ZENBATEKOA (% 18KO BEZA BARNE): -141.074,63 euro

KONTRATUAREN ZENBATEKOA GUZTIRA (% 18KO BEZA BARNE): 15.326.084,92 euro / 2 urte

- HIRUGARREN ALDAKETAREN DATUAK (Aztarain, Allende eta eguneko ospitalea kanpoan lagatzea + 2010 eta 2011ko soldaten erregularizazioa + 2010 eta 2011ko eta 2012ko 11 hilabeteren karrera profesionala sartzea):

ZENBATEKOA (% 18KO BEZA BARNE): 637.536,10 euro / 2012ko azaroaren 30era arte

KONTRATUAREN ZENBATEKOA GUZTIRA (% 18KO BEZA BARNE): 15.963.621,04 euro / 2012ko azaroaren 30era arte

52 espedientean, azkenik, sektoreko hitzarmen kolektiboko soldata-gehikuntzari dagokio gorakada. Hasierako espedientearen Baldintza Teknikoen baldintza-orrien karatulan, 22 klausula ezartzen da prezioak berrikusteko formula gisa. Klausula horrek honela dio:

“Osakidetzaren Garbiketa Zerbitzuaren enpresa kontzesionarioetarako Sailaren Hitzarmen Kolektibo Bakarren 21. artikuluan aurreikusten diren balizko soldata-gehikuntzetan bakarrik (2002/03/25eko EHAA).

Deskribatutako soldata-gehikuntzaren ondorioz langileen kostuetan izandako gehikuntza errealak izango du prezioen berrikuspen honek urteroko muga maximotzat, beti ere kontuan hartuz soldata-gehikuntza onartutako egunean dagoen langile-kopurua.

Hitzarmenean homologazio kontzeptuaren barruan aurreikusten diren soldata-gehikuntzen ondoriozko prezio-berrikuspena egingo da”.



- *Kontratuaren prezioa ordaintzean, gainditu egin da legean aurreikusitako epea 7,4 milioi euroan esleitutako 3 obra-espeditetan, 4 hornidura-espeditetan eta 4 zerbitzu-espeditetan (SPKLren 200.4 art.) (7, 8, 9, 10, 11, 12, 14, 16, 17, 19, 20 eta 22 espedienteak).*

ALEGAZIOAK

7, 8, 9, 10, 11, 12, 14, 16, 17, 19, 20 eta 22 espedienteak

7 eta 8 espedienteetan, fakturak kontabilizatzean finkatzen den ordainketa-epemuga ez da sekula 60 egun baino gehiagokoa.

Ordaintzeko epea bete ez izana gure eskumenetik kanpo dauden hainbat faktorek eragin dute:

- Kasu batzuetan, kontratistak berandu jalkitzen du faktura. Hori erregistro-datan ikus daiteke.

- Beste kasu batzuetan, ordaintzeko agindua ez da ematen epemuga iritsitakoan (zerbitzu-erakunde bakoitzaren diruzaintzari baitagokio) baizik eta geroago.

9 espedienteetan, badirudi likidazioaren ordainketari dagokiola gorabehera, eta, kasu honetan, frogatutzat eman dira hiru egitate hauek:

- Faktura-data 2010/06/28 izan arren, 2010/09/06an jaso du administrazio honek.
- Ordainketa konpentsatzeko data hau da: 2010/10/05.
- Faktura jaso zenetik 30 egun igaro baino lehen ordaindu da.

Ikusi erantsitako dokumentazioa (12-15 dokumentuak).

10 espedienteetan, ekipoa jasotzeko data hartu behar da kontuan:

- Dokumentua 2010/06/30ean jalki zen, baina sarrera-erregistroan data hau ageri da: 2010/09/08.
- Ordainketa konpentsatzeko data hau da: 2010/10/05.
- Ekipoa jaso zela jakinarazi zenetik 30 egun igaro baino lehen egin da ordainketa.

Ikusi erantsitako dokumentazioa (16-21 dokumentuak).

11 espedienteetan, 2009ko ekitaldiaren kapital-aurrekontuari dagokion zatia 2010eko aurrekontu-ekitaldian exekutatu da. Aukera hori Osakidetza zuzendari nagusiaren 8/2.203 zenbakidun instrukzio honetan erregulatuta dago: "Ekitaldi bat ixtean exekutatu gabe geratu den kapital-aurrekontua hurrengo ekitaldiaren kapital-aurrekontuan sartzea".



Kontratu honetan exekutatu gabe geratu den aurrekontua beste ekitaldi batean sartzea 2010eko martxoaren 04an baimendu zuen zuzendari ekonomiko-finantzarioak. Beraz, 2010ean exekutatzea onargarria da, eta ez dago urtekako doikuntzarik egin beharrik.

SAPeko dokumentu honetan ageri diren kontabilitate-datuen arabera, legez ezarritako 60 eguneko epean egin zen ordainketa:

SAPeko kopiak, fakturenak eta hartze-aktenak erantsi dira.

Ikus dokumentazio atxikia (22-26 dokumentuak).

12 espedientean, ekipoa jasotzeko data hartu behar da kontuan:

- Fakturaren jasotze-data: dokumentua 2010/05/27an jalki zen, baina sarrera-erregistroan 2010/06/04 ageri da.
- Ordainketa konpentsatzeko data hau da: 2010/08/05.
- Faktura jaso eta 60 egunera egin da ordainketa.

Ikusi erantsitako dokumentazioa (27-30 dokumentuak).

14 espedientean, gorabehera hori zuzenduta dago, eta fakturak legean ezarritako epearen barruan ordaindu ahal izateko moduan kontabilizatzen dira.

16 espedientean, legez ezarritako epeaz kanpo egin da ordainketa, fakturak erregistroan 2010-06-09an eta 2010-11-09an sartu zirelako, hurrenez hurren, hau da, legezko 60 egun igaro eta askoz beranduago (2009-12-31n eta 2010-07-31n jaso ziren).

SAPen dokumentua, fakturen kopiak eta hartze-akten kopiak erantsi ditugu (31-34 dokumentuak).

19 espedientean, legez ezarritako epeaz kanpo egin da ordainketa, faktura 2010-09-07an sartu zelako erregistroan, eta, horregatik, ezin da kontabilizatu epe barruan (jaso zeneko data: 2010-04-30).

Sarrerako erregistro-data ikusten den fakturaren kopia eta ordainketa-data ageri den SAPen dokumentua erantsi ditugu.

Ikus dokumentazio atxikia (45-46 dokumentuak).

20 espedienteari dagokionez, datak kontuan hartuta, ez da ordaintzeko epea gainditu.

- Oinarrizko proiektua: fakturaren data, 2010/05/31
- Ordainketa konpentsatzeko data hau da: 2010/06/07.

Ikusi erantsitako dokumentazioa (47-50 dokumentuak).



22 espedientean, hartze-aktaren sarrera-data 2010/05/03 da. Beraz, fakturaren hartze-datatik 60 eguneko epearen barruan egin da ordainketa. Faktura 2010/06/11n jaso zen, eta 2010/07/26an ordaindu zen.

10013/00227 zenbakidun faktura erantsi dugu.

Ikusi erantsitako dokumentazioa (50 bis eta 50 ter).

- *Exekuzioaren epea bete gabe geratu da partzialki edo erabat berandu entregatu direlako 1,8 milioi euroan esleitutako 3 hornidura-espediente (SPKLren 205 art.) (10, 11 eta 12 espedienteak).*

ALEGAZIOAK

10, 11 eta 12 ESPEDIENTEAK

10 espedientean, 2009 eta 2010erako urte anitzeko kontratu baten izapidetzea hasten da, baina, kontratuan urte aniztasun hori jasota ez dagoenez, diligentzia bat egiten da, eta bertan jasota geratzen da urte bakoitzari dagokion doikuntza. Hala, kontratua erregularizatuta utzi nahi da, eta epea 2010era luzatu nahi da.

Ikusi erantsitako dokumentazioa (51-57 dokumentuak).

11 espedientean, 2009ko ekitaldiaren kapital-aurrekontuari dagokion zatia 2010eko aurrekontu-ekitaldian exekutatu da. Aukera hori Osakidetza zuzendari nagusiaren 8/2.203 zenbakidun instrukzio honetan erregulatuta dago: "Ekitaldi bat ixtean exekutatu gabe geratu den kapital-aurrekontua hurrengo ekitaldiaren kapital-aurrekontuan sartzea".

Kontratu honetan exekutatu gabe geratu den aurrekontua beste ekitaldi batean sartzea 2010eko martxoaren 04an baimendu zuen zuzendari ekonomiko-finantzarioak. Beraz, 2010ean exekutatzea onargarria da, eta ez dago urtekako doikuntzarik egin beharrik.

SAPeko kopiak, fakturenak eta hartze-aktenak erantsi dira (22-26 dokumentuak).

12 espedientean, 2009 eta 2010erako urte anitzeko kontratu baten moduan izapidetzen da, baina, kontratuan urte aniztasun hori jasota ez dagoenez, diligentzia bat egiten da, eta bertan jasota geratzen da urte bakoitzari dagokion doikuntza. Hala, kontratua erregularizatuta utzi nahi da, eta epea 2010era luzatu nahi da.

Ikusi erantsitako dokumentazioa (58-63 dokumentuak).



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

III.2.2 2010EAN ADJUDIKATUTAKO ESPEDIENTEAK

Akats esanguratsu hauek antzeman dira:

- *Esleitzeko erabili diren irizpideak ez daude zuzenean lotuta kontratuen helburuarekin edo ez daude haztatuta eskaintza ekonomikoki abantailatsuena finkatzeko, 52 milioi euroan esleitutako 4 obra-espeditetan, 11 hornidura-espeditetan, 7 zerbitzu-espeditetan eta espediente misto batean (SPKLren 134.1 eta 4 art.) (57, 58, 62, 66, 67, 68, 69, 70, 71, 72, 75, 77, 79, 83, 84, 89, 92, 93, 95, 96, 97, 98 ETA 100 espedienteak).*

ALEGAZIOAK

ESPEDIENTEAK: 57, 58, 62, 67, 68, 69, 70, 71, 72, 75, 77, 79, 83, 84, 89, 92, 93, 95, 96, 97, 98 eta 100

HAKLren 87 artikulua eta TRLCAPren 86 artikulua, eta, orain, SPKLren 134 artikulua irizpide-zerrenda zabala eskaintzen dute. Gauza jakina da Legeak eskaintzen duen irizpide-zerrenda horren balioa aipamenezkoa bakarrik dela eta ez duela, inolaz ere, zerrenda tasatu baten balioa, hori erkidego mailako zuzenbideak bakarrik ezar baitezake.

Hala ere, Kontratazio Administratiboaren Kontsulta Batzordeak (KAKB) baieztatu behar izan du hori. Indarrean dagoen bertsioan, SPKLren 134.1 artikulua zabaldu eta eguneratu egin du zerrenda hori, eta adierazi du ezen "*proposamenak balioesteko eta eskaintza ekonomiko abantailatsuena finkatzeko, kontratuaren helburuari zuzenean lotutako irizpideak erabili behar direla, hala nola kalitatea, prezioa, obraren erabilerari edo zerbitzu-prestazioari lotutako ordainsariak eguneratzeko balio duen formula, prestazioaren exekuzio- edo entrega-epea, erabilera-kostua, kontratatu beharreko prestazioen onuradunen populazio-kategoria gutxietsien beharrei (kontratuaren zehaztapenetan definituak) ondoen erantzuten dieten eskakizun sozialak edo ingurumenekoak asetzen dituzten ezaugarriak, errentagarritasuna, balio teknikoa, ezaugarri estetiko edo funtzionalak, ordezkoko piezen eskuragarritasuna eta kostua, mantentze-lanak, asistentzia teknikoa, saldu osteko zerbitzua eta antzekoak*".

Agindu hori berriro aztertuko dugu aurrerago beste arlo batzuetan.

Baina ezin dugu ahaztu 134.1 artikulua lehen parteak muga material garrantzitsua ezartzen duela zera dioenean: *kontratuaren helburuari zuzenean lotutako irizpideak erabili behar dira*. Agindu hori ezin da albo batera utzi baldintza-orrian irizpideak zehazteko garaian. Izan ere, hori izango da, seguru asko, kontuan hartu beharreko baldintzarik garrantzitsuena. Gainera, Europako Erkidegoko Justizia Epaitegiak, estatuko epaitegiak eta KAKBk behin eta berriro esaten dute ezin direla kaudimenaren egiaztapen-bideak erabili eskaintzak balioesteko irizpide gisa; izan ere, lehenak lizitazioaren lehenengo fasean erabiltzen dira enpresen gaitasun ekonomikoa eta teknikoa ezagutzeko, eta balioespen-irizpideak geroago erabiltzen dira.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Hau da, eskaintza ekonomikoki abantailatsuena aukeratzeko, kontratuaren helburuari eta eskaintako prestazioari erreparatu behar zaie, ez prestazioaren eskaintzaileari.

Baldintza hori abiapuntu hartuta, posible da kontratazio-erakundeek irizpideen zerrenda mugagabe bat formulatzea.

Arau orokor gisa, kontuan hartu behar da *lizitatzailleak kontratua exekutatzeko eskaintzen dituen baliabide pertsonal, material eta teknikoak* kaudimen-irizpide gisa erabil daitekeela hasierako hautespen-fasean edo kontratuaren adjudikazio-fasean, hasierako hautespenean erabili ez bada.

KAKBk txosten askotan aipatu du gai hori¹, eta, EEJEaren doktrina abiapuntu hartuta, hautespen-irizpideak eta esleipen-irizpideak bereizi ditu. 2002ko urtarrilaren 9ko KAKBren 37/01 txostenari jarraiki, *"irekita dauden prozeduretan, kontratistak hautatzeko fasean, enpresen gaitasuna eta kaudimena egiaztatze bideak baloratuko dira, hau da, enpresak berak dituen ezaugarriak, eta, esleipen-fasean, 86 artikuluan aipatutako irizpide objektiboak erabiliko dira..... Baliabide pertsonalak eta materialak kontratistaren kaudimen-beharkizun gisa hartu behar dira; beraz, lehiaketa batean aurkeztutako eskaintzak balioesteko edo esleitzeko irizpide gisa zerbitzua emateko eskaintzen diren baliabide pertsonalak edo materialak [zerbitzu-eskaintzaren elementu gisa erantsiak] erabiltzeko aukera erlazionatuta dago EEJE honek txostenetan adierazitakoarekin, hau da, lehiaketetan esleipen-irizpide gisa "enpresen ezaugarriak" erabil daitezkeelako adierazpenarekin.*

Jarraibide garrantzitsu hori gorabehera, EEJEn arabera, baliabide pertsonal eta materialen kopururik handiena —minimo gisa eskatutakoen aldean— esleipen-irizpidetzat jaso daiteke baldintza-orrietan kaudimenaren aurretiazko baldintza gisa. Baina ez da inolaz ere onargarria ezaugarri bera bi aldiz balioestea kontratazioaren bi faseetan: enpresa hautatzeko lehen fasean eta kontratua esleitzeko hurrengo fasean.

Azaroaren 12ko 59/04 txostenaren argudioen arabera, horrek ez ditu ezbaian jartzen ez erkidegoko direktibak, ez KAKBren doktrina, ez kontratazio publikorako espainiar araudia.

Baldintza horiek direla eta, EEJEk baztertu egin ditu esleipen-irizpide gisa honako hauen baliagarritasuna: laneko ezbeharren indizeak (ekainaren 30eko 11/1999 txostena), laneko arriskuei aurre hartzeari buruzko gaiak (urriaren 30eko 42/06 txostena) edo laneko egonkortasun-maila (ekainaren 13ko 5/02 txostena).

Kontratua burutzeko epea laburtzeari dagokionez, gizartearen interesekoa denean bakarrik onartzen du EEJEk esleipen-irizpide gisa; beraz, irizpide hori ez da klausula administratibo partikularren baldintza-orrietan jaso behar epe-murrizketa ez bada Administrazioaren intereseko zerbait (azaroaren 11ko 29/1998 txostena).

Nolanahi ere, hori ez da gai bat erabat itxia. Hautaketa-irizpide gisa esperientzia minimotzat jo den hori baino handiagoa izatea esleipen-irizpide gisa hartzeko aukera

¹ Adibidez, abenduaren 16ko 22/1994 txostenean, urriaren 24ko 28/1995 txostenean, 1998ko martxoaren 2ko 53/1997 txostenean, urtarrilaren 9ko 36/2001ean, 2003ko otsailaren 28ko 45/2002an.



aztertzearekin batera (hartu gogoan estatuko EEJEk azaroaren 12an emandako 59/04 txostenak esandakoa), pentsatu behar da ez ote duen lehia gehiago murrizten hautaketaren lehen faseko kaudimen-elementu gisa esperientzia jakin bat eskatzeak, kontratua esleitzeko fasean esperientziari puntu gehiago emateak baino. Seguru asko, doktrina hori urratu gabe kontratua esleitzean enpresaren esperientzia haztatzeko modurik onena izango da prozedura murriztua, edo prozedura negoziatua, ahalik eta ondoen erabiltzea, eta, horretarako, enpresen gaitasuna eta kaudimena oso zorrotz aztertu ondoren, eskaintzak aurkezteko gonbita luzatzea.

Beraz, esku artean ditugun kasuetan, hainbat esleipen-irizpide finkatu ziren, kontratuaren helburuari zuzenean lotuak eta kontratatu beharreko xedearen bidez ase beharrezko premietara egokituak: batetik, lizitatzailleak kontratua burutzeko eskaintzen duen prezioa (izaera objektiboko irizpidea) eta, bestetik, baliabide pertsonal, material eta teknikoak; izan ere, irizpide horiek erabakigarriak izango dira baldintza-orrian zehaztutako funtzioak behar bezala bete daitezten.

Horrenbestez, balorazio-irizpideak aukeratzeko eta horiek haztatzeko, espedienteko Oinarri Teknikoen baldintza-orrian jasotzen diren alde esanguratsuenak hartu behar dira kontuan, lizitatzailleen eskaintzak kontratuaren helburuan eskatzen denera egokitu daitezten bermatzeko.

Espediente bakoitzean ezarritako irizpideen hautaketa behar bezala justifikatuta dago; izan ere, irizpideok kontratuaren helburuaren ezaugarriak kontuan hartuta zehaztu behar dira, produktuaren edo zerbitzuaren ezaugarri intrintsekoak baloraturaz, abantaila handieneko eskaintza lortzeko.

- Lizitazioaren iragarkiak ez ditu aipatzen esleipen-irizpideak ez eta haien haztapena ere 28,4 milioi euroan esleitutako 8 hornidura-espedientetan, 6 zerbitzu-espedientetan eta 2 espediente mistotan (SPKLren 134.5 art.) (58, 62, 63, 68, 71, 72, 75, 76, 77, 79, 83, 84, 89, 92, 93 y 98 espedienteak).

ALEGAZIOAK:

EXPEDIENTEAK: 58, 62, 63, 68, 71, 72, 75, 76, 77, 79, 83, 84, 89, 92 eta 93

Azken finean, SPKLren 134 artikulua 5. atalak dio, hitzez hitz, "hautatutako irizpideak eta haztapena lizitazioaren iragarkian *adieraziko* direla (...)"; beraz, kontratazio-organoaren iritziz, legea bete egiten da, DOUEn eta BOEn argitaratutako lizitazio-iragarkian esanda geratu delako zer dokumentu publikotan aurkitu ditzaketen esleipen-irizpideak eta haien haztapena zehatzago ezagutu nahi dituztenek.

Are gehiago, adierazi behar da bai DOUEn argitaratutako lizitazio-iragarkiaren IV.2.1 atalak, bai BOEren 3.d) atalak irizpideak eta haztapena aipatzen dituztela.

Nolanahi ere, kontratazio publikoan hartzen ditugun neurriak hobetze aldera, luze eman dugu lanean, eta dagoeneko jasotzen dugu lizitazio-iragarkietan esleipen-irizpideei eta haien haztapenari buruzko informazio zehatzagoa.



- *Ez da sailkapenik eskatu edo lanen izaerarentzat edo zenbatekoarentzat desegokia den sailkapen profesionala eskatu da 3,7 milioi euroan esleitutako 3 zerbitzu-espeditetan eta espediente misto batean (9/2008 Errege Lege Dekretuaren 6. Xedapen Gehigarria eta 5. Xedapen Iragankorraren 54 eta 56 art.) (63, 85, 90 eta 99 espedienteak).*

ALEGAZIOAK

63, 85 eta 99 ESPEDIENTEAK

63 espedientean bertan jasota dago eskatu behar den derrigorrezko sailkapena. Sailkapenaren betebeharra eskatzen dela akreditatzen duen dokumentuaren fotokopia erantsi dugu.

Ikusi erantsitako dokumentazioa: 94 dokumentua.

85 espedienteari dagokionez, kontuan hartzen badugu espediente horren xedea dela Gipuzkoa eraikinaren esterilizazio-zerbitzuari jarraipena ematea zentral berria martxan jarri arte, eta enpresa esleipenduna orain arte zerbitzua eskaintzen ari zen enpresa bera dela, eta espedientea eskusibotasunezko kontratu negoziatu moduan bideratu zela, esan daiteke sailkapena akreditatuta zetorrela aurreko espedientetik.

99 espedientean, honako sailkapen hau ageri da karatularen 29. puntuan:

A GUTUNAZALA - GAITASUN- ETA KAUDIMEN-ESKAKIZUNAK (Ikusi baldintza-orrietako klausulak. Atzerriko enpresek dagokion eranskinean aurreikusitakoa hartu beharko dute kontuan)

29.1 Eskatutako sailkapena:

TALDEA	AZPITALDEA	KATEGORIA
P	4	A

Sailkapen hori ez dutenez, Europako Batasuneko kide diren estatuetakoa enpresa ez-espainiarrek ondoren aipatutako baliabideen bidez akreditatu beharko dituzte kaudimen ekonomiko eta finantzarioen eta kaudimen teknikoaren eskakizunak (SPKLren 64 eta 67 artikuluei jarraiki), hargatik eragotzi gabe atzerriko enpresei buruzko eranskinak aipatzen duen presuntzioa.

P taldea ekipo eta instalazioen mantentze- eta konponketa-lanakenez, eta 4 azpitaldea elektromedikuntzako ekipo eta instalazioen mantentze- eta konponketa-lanakenez, gure ustez sailkapen zuzena eskatu da. Horrez gain, urteko zenbatekoa 150.000 euro baino gutxiagokoa denez, A kategoria ere zuzena da urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren 38 artikulua honi jarraiki:



38. artikulua

Zerbitzu-kontratuen sailkapen-kategoriak

Enpresen sailkapenak bat etorri behar du zerbitzu-kontratuen kategoria hauekin; urteko zenbatekoaren batezbestekoaren arabera zerrendatzen dira:

A kategoria, urteko batezbestekoa 150.000 eurotik beherakoa denean.

B kategoria, urteko batezbestekoa 150.000 euro edo gehiago izanik 300.000 euro baino txikiagoa denean.

C kategoria, urteko batezbestekoa 300.000 euro edo gehiago izanik 600.000 euro baino txikiagoa denean.

D kategoria, urteko batezbestekoa 600.000 euro edo gehiago denean.

- *Hornigai berriztagarrietan, luzapenak barne 3 urteko iraupena gainditzen da inolako justifikaziorik gabe 5,1 milioi euroan esleitutako 4 hornidura-espeditetan (SPKLren 23 eta 157.c artikulua) (83, 84, 91 eta 94 espedienteak).*

ALEGAZIOAK:

83, 84, 91 eta 94 ESPEDIENTEAK.

83, 84, 91 eta 94 espedientei dagokienez, SPKLren testu bateginak ez du zehatz-mehatz erregulatzen hornidura-kontratuen luzapena. Nolanahi ere, luzapenaren bideragarritasuna arrazoitzeko elkar hartzen dira kontratu berriztagarriak egongo direlako aurreikuspena, hitzarmen-askatasuna eta erreferentziagai ditugun baldintza-orrietan eta batez ere karatularen 5. puntuan finkatutako aurreikuspena; izan ere, puntu horretan, exekuzio-epaia eta luzapen-kopurua aipatzen dira.

Horrenbestez, eta kontratuen iraupenari buruzko SPKLren 23. artikulua 2 puntuari jarraiki, luzapen bat edo batzuk aurreikus daitezke baldin eta kontratuaren ezaugarriak ez badira aldatzen luzapenaren iraupen osoan eta, esleipena egiteko lehiaketa zabaldu denean, kontratuaren gehieneko iraupena hartu bada kontuan, luzapenen iraupena barne, hala baitago jasota espedientearen hasieran, espedientearen balio estimatuaren errotulupean (hasierako kontratuaren zenbatekoari dagokion lizitazio-aurrekontutik aparte dago).

- *Lizitazioaren iragarkiak ez du zehazten zer elementutan eta baldintzatan baimentzen den aldaerak edo hobekuntzak aurkeztea 25,4 milioi euroan esleitutako 10 hornidura-espeditetan eta 2 zerbitzu-espeditetan (SPKLren 131.2 art.) (65, 67, 68, 76, 83, 84, 89, 92, 95, 96, 97 eta 98 espedienteak).*

ALEGAZIOAK

65, 67, 68, 76, 83, 84, 89, 92, 95, 96, 97 eta 98 ESPEDIENTEAK.



65, 67, 68, 76, 83, 84, 89, 92, 95, 96, 97 eta 98 espedienteei dagokienez, aldaerak eta hobekuntzak ez dira aldizkari ofizialetan agertzen; izan ere, iragarki horien argitalpena eta ordainketa orrialde horien bidez egiten da, eta orrialde horietako eremu batzuk nahitaezkoak dira baina beste batzuk ez. Eta aldaerak eta hobekuntzak ez dira nahitaezko eremuak. Baina kontratatzailearen profilean ikus daitezke. Gure ustez, SPKLren 134.5 artikuluan jasotako agindua arazorik gabe bete da espedienteei eman zaien publizitatearekin; izan ere, BOE eta DOUE aldizkari ofizialetan argitaratzeaz gain —zenbatekoagatik nahitaezkoa izan denean—, kontratatzailearen profilean ere agertu da. Azken horretan, oinarriak, irizpideak eta haztapena agertzen dira, bai eta, aldaerak edo hobekuntzak aurkeztea baimenduta dagoen kasuetarako, lizitatzailleek behar duten informazio osatu guztia ere.

- *Ez da adituen batzorderik osatu eskaintzak balioestean automatikoki ebaluatutako irizpideen hainbanaketa efektiboa txikiagoa denean balio-judizio baten baitan daudenena baino, 3 zerbitzu-espedientetan eta espediente misto batean, 4,4 milioi eurotan esleituak (SPKLren 134. 2 art.) (72, 75, 93 eta 100 espedienteak).*

ALEGAZIOAK

72, 75, 93 eta 100 ESPEDIENTEAK

134.2 artikulua arabera, prozedura ireki edo murriztu baten lizitazioan irizpideak formulak aplikatuz automatikoki ebaluatu ondoren esleitutako haztapena txikiagoa bada kuantifikatzeko balio-judizioa eskatzen duten gainerako irizpideen haztapen baino, batzorde bat osatu behar da.

72 eta 75 espedienteetan, formulen bidez ebalua daitezkeen irizpide ekonomikoari esleitutako haztapena puntuazio osoaren % 65 da; beraz, ez da beharrezkoa, gure ustez, adituen batzordea sortzea.

Ikusi erantsitako dokumentazioa: 101-102 dokumentuak (PCAPren karatula; bertan agertzen dira esleipen-irizpideak).

93 espedienteetan, balio-judizioari esleitzen zaien haztapena 40 puntukoa da, eta formula bidez balioesteko modukoari, 60 puntu esleitzen zaie guztira.

Ikusi erantsitako dokumentazioa: 103-105 dokumentuak (PCAPren karatula; bertan agertzen dira esleipen-irizpideak).

100 espedienteetan, balio-judizioen bidezko irizpideari esleitzen zaien haztapena % 50 da, eta automatikoki balioesteko modukoena, % 50; beraz, berdina dira, eta ez bata bestea baino txikiagoa, eta hori eskatzen du SPKLren 134 artikulua adituen batzordea osatzeko baldintza gisa.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

- *Behin-behineko esleipenaren ebazpena garaiz kanpoko da 8,5 milioi euroan esleitutako 2 obra-espeditetan, (SPKLren 145 art.) (69 eta 70 espedienteak).*

ALEGAZIOAK

69 eta 70 ESPEDIENTEAK

SPKLren 145.2 artikulua zera xedatzen du behin-behineko esleipena egiteko gehieneko epeari buruz: kontratua esleitzeko irizpide asko hartu behar direnean kontuan kontratazio-espediten honetan gertatzen den bezala, gehieneko epea bi hilabetekoa izango da proposamenak irekitzen diren unean kontatzen hasita.

69 eta 70 espedientei dagokienez, egia da bi hilabete baino gehiago igaro direla proposamenak ireki direnetik esleitu arte, baina nabarmendu beharra dago ezen, bi hilabeteko ohiko epea gairatu arren (ez iraungitze-epea, ez preskripzio-epea) eta argi utzita prozedura luzatu izana erabat ohiz kanpoko dela, arrazoi funtsezko bat nagusitu dela, txosten teknikoak igortzeko zailtasun asko izan baitira (probak egin beharra sortu da, teknikariak agenda-arazoak izan dituzte eta laguntza eskaintzen jarduteaz gain haiek ibili dira txostenak egiten, teknikari txostengile ugari egon dira,...), eta horrek guztiak luzatu egin du proposamenak ireki direnetik esleitu diren arteko denbora.

Doktrinak berak zehazten duenez, bi hilabeteko epea ez da erabakigarria ezeztatzeko (LRJAP delakoaren 63.3 artikulua); lizitatuzaileek beren eskaintzari zenbat denboran atxiki behar dioten baino ez du arautzen.

- *Esleipena ez da aldizkari ofizialean argitaratu 2,6 milioi euroan esleitutako 3 hornidura-espeditetan eta 2 zerbitzu-espeditetan (SPKLren 138.2 art.) (71, 72, 76, 77 eta 100 espedienteak).*

ALEGAZIOAK

71,72, 76, 77 eta 100 ESPEDIENTEAK

71, 72, 76 eta 77 kontratazio-espediten esleipena behar bezala argitaratu zen Estatuko Aldizkari Ofizialean, eta 100 espediten esleipena, EHAOn.

Ikusi erantsitako dokumentazioa: 111-116 dokumentuak.

- *Kontratuaren prezioa ordaintzean gairatu egin zen aurreikusitako legezko epea 12,5 milioi euroan esleitutako 2 obra-espeditetan eta hornidura-espediten batean (SPKLren 200.4 art.) (57, 64 eta 66 espedienteak).*

ALEGAZIOAK

57, 64 eta 66 ESPEDIENTEAK



57 espedienteari dagokionez, uste dugu likidazioaren ordainketaz ari direla.

- Azken ziurtapenaren faktura-data: 2011/11/28
- Azken ziurtapenaren fakturaren ordainketa konpentsatzeko data: 2012/01/24

Faktura epe barruan ordaindu da.

Ikusi erantsitako dokumentazioa: 117-120 dok.

64 espedientean, SAPeko dokumentu honetan ageri diren kontabilitate-datuen arabera, legez ezarritako 60 eguneko epean egin zen ordainketa:

SAPeko kopiak, fakturenak eta hartze-aktenak erantsi dira

Ikusi erantsitako dokumentazioa (121-125 dokumentuak).

66 espedienteari dagokionez, uste dugu likidazioaren ordainketaz ari direla.

- Azken ziurtapenaren faktura-data: 2012/07/31
- Azken ziurtapenaren fakturaren ordainketa konpentsatzeko data: 2012/08/24

Faktura epe barruan ordaindu da.

Ikusi erantsitako dokumentazioa: 126-129 dokumentuak.

- *Kontratua behar bezala eta baldintza-orrietan jasotakoaren arabera bete dela ziurtatzen duen hartze-akta falta da 1,4 milioi euroan esleitutako 3 zerbitzu-espedientetan (SPKLren 205.2 art.) (72, 74 eta 75 espedienteak).*

ALEGAZIOAK

72, 74 eta 75 ESPEDIENTEAK

72, 73 eta 74 espedienteei dagokienez, bata bestearen segidan eskaintzen diren zerbitzuen urtebeteko edo urtebetetik gorako kontratuak dira. Fakturazioa hilerokoa izaten da eta zenbateko finkokoa. Kasu horietan, Ospitaleak ez du hartze- edo adostasun-akta bat egiten. Aitzitik, eskaera ireki bat edo entrega-plan bat sortzen du SAPen, eta han planifikatzen ditu aurreikusitako fakturei dagozkien hileroko entregak. Entrega-plan horri jarraituz, hilerokoa, sarrera ematen zaio SAPen entrega horietako bakoitzari, baldin eta prestazioa egoki egin bada. Sarrera horrek erregistro informatikoa du eta SPKLren 205.2 artikulua eskatzen duen hartze- edo adostasun-ekintza positibotzat eta formaltzat hartzen da.

Horrez gain, kontratu txiki moduan 28 zentrotan eta guztira 5,7 milioi euroko aurrekontuarekin izapidetu diren inbertsioen eskuraketan, zatikatu egin da kontratazioaren helburua 10 zentrotan, 1,3 milioi euroan; beraz, hautsi egin dira legez ezarritako kontratazio-prozedurak. Lege-hauste horien % 63 "ERABILERA KLINIKOKO MAKINERIA" izeneko kontuan gertatu dira.



ALEGAZIOAK

2010eko sisteman sartu diren zuzeneko eskaeren SAP sistema ekonomiko-finantzarioko materialen kodeak aztertu ondoren, ikusi da hainbat arrazoi daudela zuzeneko eskaerak, indarreko kontratuekin edo kontraturik gabe, egiteko. Arrazoi garrantzitsuena zen beharrezkoa zela material horiek eskura izatea izapidetutako espedienteak esleitu aurretik.

Higigarrien eta tresneriaren parte bat ordezkagarria izan arren inbertsio gisa kontabilizatu izanari dagokionez, kontuan hartu behar da ahal den guztietan multzokatu egiten direla eta kode finko bakarrean sartzen direla, 3/2003 instrukzioan jasota dagoena betez.

II.- IRITZIA

II.1 OSAKIDETZA

II.1.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

Langileak

9. Produktibitate-osagarri batzuk ordaindu dira, Osakidetza langileen lan-baldintzak arautzen dituen Akordioan (abenduaren 31ko 235/2007 Dekretu bidez onartua, gero ekainaren 30eko 106/2008 Dekretu bidez aldatua) jasotzen ez direnak baina Erakunde Zentraleko Jarraibide batzuetan jasotzen direnak. Hala, bada, 2010eko nominan zenbateko hauek ordaindu dira: 2,9 milioi euro produktibitate-osagarri gisa, lehen mailako arretako unitateetan fakultatiborik ez dagoenean ordezkapenak egiteagatik; 2,9 milioi euro produktibitate-osagarri gisa, ospitaleetako pertsonal fakultatiboak larunbat, igande eta jai-egunetan goizeko moduluko zerbitzua egiteagatik; 660.465 euro produktibitate-osagarri aldakor gisa, lehen mailako arretan erizaintzako alta ondoko zainketak egiteagatik; eta 3,3 milioi euro produktibitate-osagarri gisa, lehen mailako arretan larunbat goizeko moduluko zerbitzua emateagatik.

Madrilgo Kontuen Epaitegiko Prozedura Atalari igorritako txostenean adierazten diren alegazioak biltzen dira ondoren, ireki ziren atariko eginbideei buruzkoak, 2009ko fiskalizazioari buruzko txostenari dagokionez.

Osagarrien eraketa

1. 235/2007 Dekretuaren Eranskinean, zeinaren bidez onartzen baita Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko langileen lan-baldintzak 2007. eta 2008. urteetarako arautzen dituen akordioa, 5. puntuan berariaz ezartzen da lehen mailako arretako fakultatiboen aitortpen-eta konpentsazio-moduak aztertzeko eta adosteko konpromisoa desplazatutako pazienteak artatzen dituztenerako eta, oro har, kupo propiokoak ez direnean.

Konpromiso hori kontuan hartuta, Akordioaren jarraipenerako bitariko mahaian eztabaidatu zen gaia, eta Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Osasun Laguntzako eta



Giza Baliabideen zuzendaritzen 2008ko urtarrilaren 23ko 1/2008 Jarraibidearen bidez onartu ziren akordioak. Bertan, Akordioaren aplikazio-irizpideak jaso ziren, lehen mailako arretako unitateetan fakultatiborik ez dagoenean egin beharreko ordezkapenei dagokienez.

2. Lehen mailako arretako erizaintzako alta ondoko zainketak egiteagatiko osagarria 2008ko ekainaren 3ko 106/2008 Dekretuan hartutako konpromisoaren ondorioa da. Izan ere, Eranskinaren 6. atalean, erizaintzako egoera espezifiko aztertzean, zehazten da lehen mailako arretako erizaintzako jardueraren ebaluazio objektiboa egingo dela haren betekizunen ezaugarriei dagokienez, horrek helburu duelarik zehaztapena eta aitorten ekonomikoa, 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera.

Zehaztapan hori Osakidetzako Zuzendaritza Nagusiaren 848/2009 Ebazpenaren bidez egin zen. Ebazpen hartan, nominei buruzko jarraibideak eman ziren, eta Ente Publikoaren ordainsariak eguneratu; horretarako, ordainsari-kontzeptu espezifiko bat sortu zen. Osagarri hori jasotzeko, jarduera behar bezala egin behar da, eta urtean etxeko kontsultakopuru minimo bat exijituko da produktibitateagatiko osagarri honi dagokion zenbatekoa jasotzeko.

3. Produktibitate-osagarria fakultatiboek ospitalean larunbat goizeko moduluko zerbitzua emateagatik. Kontzeptu honen bidez, larunbatean egindako jarduera programatua ordaintzen zen, pazienteari bisita egitea barne.

Neurri zuzentzaileak

Gaia azterturik eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak adierazitakoa ikusirik, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Zuzendaritza Nagusiaren 2012ko martxoaren 26ko 443/2012 Ebazpenean, zeinaren bidez ematen baitira nominei buruzko jarraibideak eta zehazten baitira 2012rako Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua Ente Publikoko pertsonalaren ordainsariak, produktibitate-osagarriei buruzko hamargarren Jarraibide hau jaso zen, laburrean honako hau ezartzen duena:

- Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Osasun Laguntzako eta Giza Baliabideen Zuzendaritzen 2008ko urtarrilaren 23ko 1/2008 Jarraibidearen bidez ezarri ziren Akordioaren aplikazio-irizpideak, lehen mailako arretako unitateetan fakultatiborik ez dagoenean egin beharreko ordezkapenei dagokienez.
- Bestetik, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Zuzendaritza Nagusiaren 2008ko ekainaren 27ko 2/2008 Jarraibidearen bidez arautu zen pertsonal fakultatibo medikoaren larunbat, igande eta jai-egun goizetako produktibitate-osagarria.
- Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Zuzendaritza Nagusiaren 2009ko otsailaren 17ko 848/2009 Ebazpenean, nominei eta Ente Publikoko ordainsarien eguneratzeari buruzkoan, lehen mailako arretako erizaintzako alta ondoko zainketak egiteagatiko osagarria finkatu zen. Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Zuzendaritza Nagusiaren 2011ko otsailaren 7ko 273/2011 Ebazpenak, zeinaren bidez agindu baitziren nominei buruzko jarraibideak eta eguneratu baitziren Osakidetzako pertsonalak 2011n jaso beharreko ordainsarien



zenbatekoak, osagarria baldintza beretan eta dagozkion eguneratzeak eginda jasotzen du (hamargarren Jarraibidea).

Hiru ordainsari-osagarri horiek ezartzea 2008. eta 2009. urteetan, hurrenez hurren, eta indarrean jarraitzea hurrengo urteetan orain arte, behin-behineko irtenbidea izan da osasun-laguntzarekin erlazionatutako zenbait alderditarako, bai arreta espezializatuan, bai lehen mailako arretan.

Alabaina, ezarpenak, nahiz eta haren azken oinarria Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko langileen lan-baldintzak 2007., 2008. eta 2009. urteetarako arautzen dituen Akordioa izan, ez zuen behar adinako oinarririk mantentzeko; izan ere, etorkizuneko jarduera-lerroak baino ez ziren finkatu han ez zen zehaztaperen ekonomikorik egin, ez eta ordainsari-kontzeptuen aitortpen zehatzik ere, eta, horrenbestez, ezinezkoa zen aplikazioa denboran luzatzea, egokitzen diren ordainsari-eskubideak dagozkion eremuan arautzeko derrigortasuna kontuan izanik. Hala, bada, Jarraibideen bidez jaso ziren ordainsarien arau teknikoak eta kudeaketakoak, alde zuzenetik behar besteko mailako arau baten bidez onartuta.

Beraz, behin 2012ko apirilaren 30eko nomina itxita, erabaki zen indarrik gabe uztea bere osotasunean Osakidetzako Osasun Laguntzako eta Giza Baliabideen zuzendaritzaren 2008ko urtarrilaren 23ko 1/2008 Jarraibidea, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Zuzendaritza Nagusiaren 2008ko ekainaren 27ko 2/2008 Jarraibidea, eta, partez, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Zuzendaritza Nagusiaren 273/2011 Ebazpena, zeinaren bidez eman baitziren nominei buruzko Jarraibideak eta eguneratu baitziren 2011rako Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua Ente Publikoko pertsonalaren ordainsariak, hamargarren Jarraibidean xedatutakoaren aplikazioari dagokionez.

Hala, bada, 2012ko maiatzetik, nominan ez da ordaindu inolako zenbatekorik aipatutako produktibitate-osagarrien kontzeptuengatik, eta, nolana ere, kontuan izan behar da aipatutako arauak indarrean egon zirenean izan zuten helburua zela laguntza asegabearen eskaria xurga zezakeen jarduera konpentsatzea, benetan egindako jardunak ordainduz baliabideak optimizatu eta osasun-laguntza hobetzeko helburuarekin.

10. Osatek S.A.n ere zerbitzuak ematen dituzten Osakidetzako langileek nominako autokontzertazio-kontzeptuaren bidez jasotzen dute zerbitzu haiengatik ordainsaria; 2010ean, 370.549 euro izan dira. Jarduera horrek ez du inola ere autokontzertazio-izaerarik.

Puntu horrek txostena egitea ere eragin du, Madrilgo Kontuen Epaitegiko Prozedura Atalaren 2009ko fiskalizazioari buruzko txostenaren ondorioz ireki ziren atariko eginbideei dagokienez.

Hori dela eta, esan behar da zerbitzuak egiazki Osateken ematen direla (Osakidetzako zerbitzu-erakundea, 1997ko azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuaren Eranskinean ageri denez, zeinak ezartzen baititu Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua Ente Publikoaren Estatutuak.



Osatekek zerbitzu-erakundeei fakturatzeko haien mendeko fakultatiboek egindako jarduerak, nominan ordain diezaieten, ulertzen delako emandako prestazio zehatzari eskari asistentziala xurgatu nahi izatea, alegia ondoen egokitzen zaion kontzeptua produktibitatea-itxarote-zerrenda dela.

Horrela jarduteko, Osateken eta Osakidetzaren mendeko gainerako osasuneko zerbitzu-erakundeen arteko Hitzarmen erregulatuak, Euskadiko Osasun Antolamenduaren Legearen 19. artikuluan ezarritako Kontratu-Programaren ondorioz sortua, hartu da oinarrian.

III. BARNEKO KONTROL-SISTEMAREN ETA KUDEAKETA-PROZEDUREN GAINKO GOGOETAK

III.3 PERTSONAL-GASTUAK

- Osakidetzak ez dizkio igorri oraindik Funtzio Publikoaren Sailburuordetzaren Laneko Harremanetarako Zuzendaritzari 3/2010 Legean ezarritakoa betetz ateratzen diren ordainsari-taulak, eta, horrenbestez, ez du bete 2010eko uztailaren 20ko Gobernu Kontseiluaren Akordioaren 5. puntua.

Horri dagokionez, ordainsari-neurriak aplikatzeko prozesuaren amaieran, zeina 2010eko abenduan izan baitzen, hilabete horretako paga estran ordainsari-murrizketaren zati bat gauzatu zelako —2010eko uztailaren 19ko Gobernu Akordioan ezarritako agindua betez—, taulak ez ziren formalki igorri; hala ere, urteko bigarren seihilekoan zenbait bilera egin ziren Funtzio Publikoaren Zuzendaritzako teknikoekin, aplikazio-irizpideak eta ordainsariei aplikatu beharreko ehunekoak zehazteko, eta horren emaitza izan ziren argitaratu eta jakinarazi ziren azken taulak, Funtzio Publikoaren Zuzendariordetzaren jarraibideei jarraiki.

Hori egiaztatzeko dokumentazio gisa igorri dira trukaturako informazio eta komunikazio guztiak, aipaturako bileren osagarri direnak; besteak beste, honako hauek:

- Maiatzeko, ekaineko eta uztailako mezu elektronikoak, taulak prestatzeko dokumentazioa eta 3/2010 Legean ezarritako ordainsari-neurriak aplikatzeak eragindako kostuen analisia erantsirik zutenak.
- Funtzio Publikoaren Zuzendariordetzaren 2010eko uztailaren 16ko mezu elektronikoa, zeinaren bidez igortzen baitzen Gobernu Kontseiluaren Akordio-proposamena.
- Osakidetzako Giza Baliabideen Zuzendaritzaren 2010eko uztailaren 19ko mezu elektronikoa, delako Akordio-proposamenari eta Osakidetzak ordaintzen dituen ordainsari-kontzeptuetan hura aplikatzeko moduari buruzko txostena igorri arestian aipaturako mezuari erantzuten ziona; Funtzio Publikoak ez zuen inolako eragozpenik adierazi.
- Funtzio Publikoaren Zuzendariordetzaren 2010eko uztailaren 20ko mezu elektronikoa, zeinaren bidez igortzen baitzen Zuzenbide Pribatuko Ente Publikoetarako eta Sozietate Publikoetarako erreferentzia-taula.



- Osakidetzak eginiko taula. Han biltzen ziren aurreko puntuan aipatutako Funtzio Publikoaren Zuzendariordetzak igorritako taularekin bat datozen ordainsari-baliokidetasunak, zenbateko bakoitzari aplikatu beharreko ehunekoaren zehaztapenarekin batera.
- 2010eko uztailaren 20ko mezu elektronikoa, zeinaren bidez igortzen baitziren informazioa osoa eta ordainsari-eta Osasun Sailera.

Ikus daitekeenez, Funtzio Publikoa jakinaren gainean egon zen, une oro, Osakidetzak 3/2010 Legean ezarritako ordainsari-neurriak aplikatzeko burututako jardueri zegokienez. Zuzendari nagusiaren 1056/2010 Ebazpena, soldata-eta taulak onartzen zituen, Osakidetzaren webean argitaratu zen; beraz, guztiak horien jakitun izan dira, eta eskatu dituzten erakunde guztiei eman zaizkie. Funtzio Publikoaren Zuzendariordetzak ez du egin inolako errekerimendurik hori dagokionez, alde batera utzirik aurreko puntuetan bildutako komunikazioak eta informazioak.

- *Gorabeherak, zerbitzu-erakundeetako plantilla funtzionaletan eta haiek egiturazko plantillara egokitzean.*

2005eko uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuak, Osakidetzako lanpostu funtzionalak arautzen dituenak, ezartzen du zerbitzu-erakundeetako plantillak onartzen dituzten ebazpenak jendaurrean jarriko direla Erakundeko iragarki-oholetan, eta, aldi berean, Osakidetzak-Euskal Osasun Zerbitzuko intranet Korporatiboan ere argitaratuko direla.

Orain arte, ebazpen horiek intranet korporatiboan argitaratzen ziren urte-hasieran, eta ez ziren aldatzen hurrengo urtera arte. 2012ko urtarrilean, ordea, Osakidetzak-Euskal Osasun Zerbitzuko Giza Baliabideetako Zuzendaritzak jarraibide bat eman zuen, Osakidetzako zerbitzu-erakunde guztietako plantilla funtzionalaren eguneratzea, onarpena eta komunikazioa sistematikoki hilean behin egin zedin.

Argitalpen horren xedea informatzea da, besterik gabe; plantilla funtzionalak eta egiturazkoak inoiz ez baitu gainditzen Administrazio Kontseiluak onartutako kopuruak.

Nolanahi ere, onartutako egiturazko plantillaren mugak errespetatzen dira, eta onartutako plantilla funtzionalak giza baliabideak kudeatzeko eta antolatze sistematan jasotzen direnak dira, eta lanpostu baterako izendapenak (izendapenean, lanpostua identifikazioarekin eta kodearekin adierazten da) berekin dakartza hari dagozkion ordainsariak. Beraz, betetzen den lanpostuari dagozkion ordainsariak jasotzen dira beti.

Urtero, dauden zerbitzu-beharren arabera, lanpostu-egokitzearen espedientea izapidetzen da; hala, plantillak beharretara egokitzen dira, eta, ondoren, ahalik eta kopuru handiena onartzen da.

Nolanahi ere, zerbitzu-erakundeetako plazak aldi baterako betetzeko sistemak aplikatuz, plantillako langile finko batzuek plantillako beste langile finko batzuen absentziak zerbitzu-eginkizunengatik, sindikatu-lanetarako liberazioagatik eta abar betetzeko aukera onartu zen;



hori dela eta, plaza bakarrean bi langile kontatzen dira, baina ez da gainditzen kopuru totala, absentzia bat ordezkapen batek betetzen duelako.

- *Lanpostu-hornidurei eta izendapenei dagozkien gaiak (prozedura dokumentu bidez jasotzea, egin beharreko zerbitzuak identifikatzea eta justifikatzea, aldi baterako izendapenen iraupena, barne-sustapenak, zerbitzu-eginkizunak, eta kategoria handiagoko funtzioak betetzea).*

Osakidetzan, lanpostuak behin betiko hornitzeko prozesua Lan Eskaintza Publikoen bidez egiten da, eta zorrotz betetzen dira publikitate, berdintasun, merezimendu eta gaitasunaren printzipioak. Horren adibide dira Osakidetzan 2002tik egin diren Lan Eskaintza Publikoak.

Horrez gain, mugikortasunari eta aldi baterako kontratazioari buruzko akordioak hartu dira, Osasun Sektoreko Mahaian eztabaidatuak, eta kontroleko bitariko batzorde berariazkoak sortu dira.

Amaitzeko, esan dezakegu Osakidetzako lanpostu-horniketa, bai behin betiko denean, bai zerbitzu-eginkizun edo aldi baterako barne-sustapena denean mugikortasun-prozesuen bitartez, bai aldi baterako denean dagokion izendapenarekin aldi baterako kontratazio-akordioen ondoriozko arauak betez, aplikatu beharreko arauak zorrotz gordez eta betez gauzatzen dela, eta jarduera horren kontrol eta jarraipen sindikala egiten dela, zentroetako eta erakunde zentralako kontratazio-batzordeen bidez.

Bitartekoen, behin-behinekoen eta ordezkoen izendapenak kontratazio-zerrendetan ezarritako ordenan egiten dira, eta korporazioko webaren bitartez argitaratu eta zabaltzen dira.

Hautaketa-prozesu guztietan, nahitaezkoa izan da lanpostu bakoitzerako eskatzen ziren titulazio-eskakizunak betetzea, eta, beraz, betekizun hori nahitaez egiaztatu behar da kontratazio-zerrendetan sartzeko.

Bestalde, Osakidetzan pertsonal-gaietan ezarritako prozedurek jarduera elektronikoko gero eta handiagoa eskatzen dute. Adibide modura, "curriculum vitae" aplikazioaren bidez, langile guztiek dokumentuak mekanizatu eta egiaztatu ditzakete, datu pertsonalak, trebakuntzakoak eta curriculumari buruzkoak balioztatzeko. Behin datuak baliozkotuta, hautaketa-prozesu, postu-hornikuntza eta Enteko zentro guztietan egiazkotasun-presuntzioa dute. Ondorioz, datua sisteman baliozkotzat jotzen da, eta ez du zertan fisikoki artxibatuta egon zerbitzu erakunde bakoitzean ireki daitezkeen langileen dossierretan.

Aldi baterakoen eta bitartekoen izendapenek, bai eta zerbitzu-eginkizunek, aldi baterako barne-sustapenek eta abarrek ere, zerbitzu erakundeetan sortzen diren beharrei aurre egiteko helburua dute, kalitateko prestazio sanitarioa eta eskariari dagokiona emateko. Zerbitzuen jarduera mantentzeko behar den denborarako izaten dira izendapenak, eta horretarako ezarritako prozeduren bidez lanpostuak legez bete arte irauten dute, indarrean dagoen legedia betez.



Zenbaitetan, izaera koiunturala duten aldi baterako izendapenen bidez egiten da zerbitzu-ematea. Dena den, premiak luze irauten badu, aztertuko da, ahal den neurrian, lanpostu horiek plantillan finkatzeko aukera.

- *Nominako lanpostu funtzionala ez dator bat izendapeneko lanpostuarekin edota ez da baliokidea (27 kasu)*

Kasu hori erakunde zentrolean gertatzen da, eta 2 adibide bereiz daitezke:

a) Lanpostu batera atxikitzea izendapen bidez eta gero aldatzea, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua Ente Publikoaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen 2005eko uztailaren 19ko 186/2005 Dekretua aplikatuz.

2007an (martxo-maiatza), erakunde zentroleko langileei formalki jakinarazi zitzairen zer lanpostu funtzionalera zeuden atxikita, aipatu Dekretuan ezarritakoarekin bat.

Jakinarazpen horrekin batera betetako lanpostuari dagozkion ordainsariak aplikatu ziren. Batzuetan, ordainsari-aldaketa ekarri zuen aurreko ordainsariekin alderatuta, aipatutako 2005eko uztailaren 19ko 186/2005 Dekretutik ondorioztatutako lanpostu funtzionalen aldaketak aplikatzean.

Dekretu horretan, 9. artikuluan aipatzen da lanpostu funtzional batera joateak lanpostu horri esleitutako ordainsari-ondorioak dakartzala.

Ez dago inongo zalantzarik lanpostu bati atxikitzean lanpostuari berari dagozkion ordainsariak jaso behar direla. Dekretuak berak, bosgarren xedapen gehigarrian, hauxe aurreikusten du: "Baldin eta lanpostu funtzionala egokitzearen ondorioz orain arte jasotzen zituen ordainsari finkoak eta aldizkakoak txikitu egiten bazaizkio, lanpostuaren titularrak eskubidea izango du ordainsari-aldearengatik osagarri pertsonal eta iragankor bat jasotzeko, lanpostu horretan dagoen bitartean". Osagarri pertsonal eta iragankor hori ez da xurgatzailea izango, nahiz eta ondorengo aurrekontu-ekitaldietan aplikatzekoak diren eguneratzeak egingo zaizkion.

Hau da, lanpostu funtzionalak onartzen dituen 186/2005 Dekretuari jarraituz, jakinarazitako lanpostuari dagozkion ordainsariak esleitu behar dira, aurreko ordainsariak baino handiagoak edo txikiagoak izan, eta jasotzen ari zena baino txikiagoa bada, dekretuan aurreikusita dago aurreko paragrafoan aipatzen den egoera berezi eta zehatz hori. Berez, Dekretuak ez du inolako kontrako aurreikuspenik egiten, oso bistakoa baita eta zuzenean aplikatzeko modukoa eta ez dago zertan espresuki aipatu.

b) Hautaketa-prozesu baten ondoriozko izendapena eta lanpostuaz jabetzea.

Pertsona horiek, hautaketa-prozesu bat gainditu ondoren (EPE edo lekualdatze-lehiaketa), dagokien izendapena jasotzen dute dagokien kategorian, eta erakunde zentroleko plantilla funtzionaleko lanpostu batez jabetzen dira "Korporazio arloko teknikari arduradun" izendapenarekin (lanpostuaz jabetzeko diligentzietan lanpostuaren



kodea adierazten eta identifikatzen da). Eta, ondorioz, jada betetzen ari ziren lanpostuaz jabetzen direnean, dagozkien ordainsariak jasoko dituzte.

Puntu horri dagokionez, eta beste batzuetan ere adierazi dugun lez, uste dugu lanpostu funtzionalen Dekretua berrikusi beharra dagoela, hautaketa-prozesu batean eskaintako lanpostuak eskaintzen diren modu berberean definitu ahal izateko. Eta, horren ondorioz, erantzukizun-funtzioak dauzkaten lanpostuak identifikatu behar dira, eta, hala badagokio, lanpostu horiek legez ezarritako lehiaketa- edo sustapen-prozeduren bidez bete beharko dira; eta bide horretan ari dira lanean.

Edonola ere, pertsona bakoitzari esleitutako ordainsariak hark benetan betetzen duen lanpostuari dagozkionak dira.

- *Erakunde zentralean, lanpostu korporatiboen ordainsariak ez datoz bat 2007-2009 eperako Osakidetzako langileen lan-baldintzen Akordioa onartzen duen 2007ko abenduaren 16ko 235/2007 Dekretu bidez Gobernu Kontseiluak ezarritako ordainsariekin.*

Osakidetzako Kontu-hartzailtzak baditu zenbait beldur puntu honi dagokionez. Beldur da, batez ere, lanpostu funtzional korporatiboen ordainsari-taulak ez datozelako bat Osakidetzako langileen lan-baldintzen Akordioaren I. eranskinean jasotzen diren bakar batekin ere, eta adierazten du ordainsari horiek ez dituela legez baimendu horretako organo eskudunak (Gobernua).

Puntu honetan adierazi behar dugu lanpostu funtzional korporatiboen ordainsari horiek onartu dituela jada organo eskudunak, Osakidetzako lanpostu funtzionalak arautzen dituen 2005eko uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuan ezarri direlako. Izan ere, II. eranskinean, I. eranskinean zerrendatutako lanpostu funtzionalen arteko parekatzea eta Osakidetzan indarrean dauden ordainsari-taula eta -kategoriei dagozkien ordainsari-mailen baliokidetzaxedatzean, espresuki adierazten da Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean lan egiten duten funtzionarioen lanpostuei dagozkien ordainsari-mailekin parekatzen direla. Ondorioz, Osakidetzan definitu dira jada lanpostu horiei aplikatu beharreko egitura eta ordainsari-errejimena, aipatu 186/2005 Dekretuan zehaztutako ordainsari-baliokidetasunak parametroak kontuan izanda, hau da, Gobernu Kontseiluak onartutakoaren eta EHAAn Dekretu mailan arau bidez argitaratutakoaren arabera.

Dekretu horretan ezartzen den ordainsari-parekatzea lanpostu funtzional korporatiboen jatorriaren eta esleitzen zaizkien funtzio eta eginkizunen ondorio da.

Lanpostu horiek, aplikatu beharreko ordainsariak finkatutakoan, azaldutakoaren arabera, urtero eguneratzen dira Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren Legeetan, Gobernu Kontseiluak ezarritako ordainsari-gehikuntzak garatu eta aplikatzeko emandako Akordioetan eta aplikatu beharreko Osakidetzako langileen lan-baldintzak arautzen dituen Akordioan ezarritakoaren arabera.

Gogoeta horiek jasota daude jada Osakidetzako Euskal Osasun Zerbitzuko Zuzendaritza Nagusiaren 2010eko otsailaren 26ko 1.056/2010 Ebazpenean, zeinaren bidez ematen baitira



nominei buruzko jarraibideak eta eguneratzen baitira Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua ente publikoko pertsonalaren ordainsari-zenbatekoak 2010erako. Eta pauta horiei jarraiturik, eranskinetan lanpostu horien ordainsariak jasotzen dira urte horietarako (2010eko ordainsari horiek aldatu egin ziren, 2010erako Euskadiko Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen Legea aldatzen duen 2010eko ekainaren 24ko 3/2010 Legean aplikatzen diren defizit publikoko murrizketa-neurriak aplikatzean).

- *Karrera profesionaleko aurrerakinak ordaintzea. Adierazten da ez zela behin betiko ebatzi ebaluatzeko prozesuaren deialdia.*

Lanbide-garapeneko mailaren behin betiko aitortenaren konturako aurrerakin moduan ordaintzen da, dagokion deialdiaren ostean. Eta hori amaitutakoan, aztertu eta koadratu egiten dira, baliokidetzeko edo, hala badagokio, aurrerakin moduan jasotako zenbatekoak zuzentzeko, lanbide-garapeneko mailaren aitortenari buruzko behin betiko Ebazpen bidez.

Edonola ere, aurrerakin horiek baliokidetzeko edo zuzenduta gelditzen dira, hala badagokio, behin betiko Ebazpena argitaratzean. Eta horrela gertatu da, eta gorabehera hori behar bezala konpondu da.

- *Aldi baterako osagarrien prozedura, hala nola kategoría handiagoko egitekoak, jaiegunetako guardiak, txandak, gaueko txanda, lokalizazioa, etab.*

Ordainsari-kontzeptu aldakorrei dagokienez adierazi beharra dago ez direla bete, benetan egindako zerbitzuak dokumentuekin justifikatu ez direlako eta organo eskudunek onartu ez dutelako, esan behar da jarduera karteldegian edo txanda-planifikatzailean adierazten dela; karteldegi hori Giza Baliabideak Kudeatzeko Sistemari integratuta dago, eta han egiten da denboren kudeaketa.

Kartelera horretan, batetik, jardueraren datu teorikoa ageri da, hau da, programatua, eta, bestetik, karteldegi erreala deitzen dena. Hor ageri dira benetan egindako jarduerak eta gainerako gorabeherak (absentziak eta presentziak), eta horiek nominan ere agertzen dira. Bistan denez, zentro bakoitzak kontrolatzen ditu aldaketa horiek karteldegian barneko jarduera-protokoloen prozeduren barnean. Eta, horrela, beti ordaintzen da nominan benetan egindako jarduera.

Aukera egon liteke zenbait bide formal zehazteko dagokionak baimena eman eta gero jarduera erregistratzeko nominan ordain dezaten; baina ezin dugu ahaztu gai honen konplexutasuna eta kudeaketa. Edonola ere, karteldegian jarduera erreala islatzen da, eta, beraz, irtenbide formal orok ezin izango du kaltetu zerbitzu asistentzialaren kalitatea, eta denbora kudeatzeko aipatutako tresnan oinarritu beharko da.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

II. IRITZIA

II.2 OSATEK, S.A.

II.2.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

2. Sozietatearen aurrekontua 3,2 milioi euroan handitu da 2010eko abenduan... Kontuan hartuta aldaketak Sozietatearen hasierako aurrekontu osoan eragiten duen ehunekoa (% 14,8), EAEko Gobernu Kontseiluak onartu egin beharko luke (1/1994 LDak onartutako Euskadiko Aurrekontu Araubidearen Testu Bateratuaren 98.2 art.)

Alegaziorik ez.

3. "Zerbitzu-zentro multikanal bat garatzea eta martxan jartzea" espedientean:

- ELU esleipenduna osatzen duten enpresetako batek "...gidaplana" egiten parte hartu du, eta gidaplana kontratu hau prestatzeko dokumentu bat da. Dokumentu horren zati bat lizitatzailerari eman zaie, eta, hala, ez dira bete Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 1. eta 45.1 artikulua, zeinen arabera lizitazioetan ezin izango baitute parte hartu zehaztasun teknikoak edo kontratua prestatzeko agiriak egiten jardun duten enpresek baldin eta parte-hartze horrek lehia askea mugatzen badu edo pribilegiozko tratua eragin badezake gainerako enpresa lizitatzailerikiko.

Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 45.1. artikulua: Bateragarritasun-baldintza bereziak

1. Lehia-elkarrizketako prozedura baten bitartez esleitutako kontratuei buruz xedatutakoa alde batera utzi gabe, lizitazioetan ezin izango dute parte hartu zehaztasun teknikoak edo kontratua prestatzeko agiriak egiten jardun duten enpresek, baldin eta parte-hartze horrek lehia askea mugatzen badu edo pribilegiozko tratua eragin badezake gainerako enpresa lizitatzailerikiko.

Lehenik eta behin, argitu beharra dago 45.1 artikulutik ez dela ondorioztatzen erakunde kontratatzaileak frogatu edo erakutsi behar duenik, nahitaez, enpresa esleipendunak ez duela izan inolako lehia-abantailarik edo pribilegiozko tratutik gainerako enpresa lizitatzailerikiko ELU esleipenduna osatzen duten enpresetako batek 2009an kontratatutako gidaplana egiten jarduteagatik.

Aitzitik, kontu horiek frogatzeko karga hirugarren interesdunen legezko eskubidea edo interesa dutenen esku dago, baldin eta kasu honetan aipatutakoak gertatu direla uste badute; kontuan izan behar da enpresa lizitatzailerikiko batek ere ez duela lizitazioaren oinarrien kontra egin, ez eta behin-behineko eta behin betiko esleipenen kontra egin ere, ustezko interes-gatazka batean oinarrituta.



Espedienteko dokumentazioaren arabera funsgabea da Gardentasun- eta berdintasun-printzipioak eta ez diskriminatzeko printzipioa urratu direla esatea, arrazoi hauek direla eta:

Lehenik, 45.1 artikulua debekuak kontuan hartuta konkurrentzia muga dezaketen arauetara egiten den interpretazio murriztailea aipatu behar da. (Hori adierazten du behin eta berriz Auzitegi Goreneko jurisprudentziak).

Bidalitako txostenetik ez da agerian geratu behar bezala, egoki eta modu onargarrian Gidaplana Osasun-zerbitzuen zentro multikanal bat garatzeko eta martxan jartzeko kontratua prestatzeko dokumentutzat edo zehaztapen teknikotzat har daitekeenik, eta, nolana ere, ondorio hori atera daiteke bakarrik bi dokumentuak xeheki aztertzen eta teknikoki erkatzen badira eta bien arteko lotura, inspirazioa edo kideasuna agerian geratzen badira.

Gainera, 45.1 artikulua arabera, bateraezintasun-ondorioak eskatzen du hala bada eta bi dokumentuen arteko lotura, inspirazioa edo kideasuna ziurtatzen bada horrek lehia askea mugatu duela edo eragin duela enpresa bati pribilegiozko tratua ematea besteekin alderatuta.

Ondorio horretara iristeko modu bakarra dago: dagokion kontraesaneko espedientea irekitzea eta ustez bateraezina den enpresa esleipendunari nahitaezko entzute-izapidea ematea, alegazio edo justifikazio egokiak eman ditzan frogatzeko gidaplana egiten jardutean edo hura prestatzean, edo kontratua prestatzeko lanak egitean, jasotako informazioa bat datorrela sektorean zabalduko ezagutza teknikoekin eta nola edo hala lizitatzailerik guztiei kondizio berdinetan eman zaiela, eta guztiek izan dutela eskaintzak informazio hori erabiliz prestatzeko aukera. (EBko Justizia Auzitegi Epaia, 2005/03/03koa: Fabricom).

**Enpresa zuzenean, entzute-izapidea bermatu gabe, baztertzek ekintza bertan behera uztea lekarke, defentsa-gabezia eragingo litzaiokeelako.*

Halaber, espedienteak dagokion entzute-izapidea emango lieke gainerako enpresa lizitatzailerik, egiaztatze esleipen-prozesuan adjudikatzailerik neurriren bat hartu duen gerta litezkeen interes-gatazkak neutralizatzeko (adibidez, lizitatzailerik guztiei gidaplana jakitera ematea; hori guztia behar bezala ziurtatu behar da), lehentasunezko neurri gisa, ustez bateraezintasun-egoera batean legokeen lizitatzailerik baztertu baino lehen.

Hala, bada, aipatutako gidaplana ezagutarazteko ekintzen xehetasunak aurkezten ditu Sozietatearen aurreko zuzendari gerente Pablo Arbeloa jaunak:

1. *IKTen Zuzendaritzak Osateken egoitzan hornitzaile guztiei proiektua azaltzeko egindako bilera.*
2. *Baldintza-orrien interpretazioan sor litezkeen zalantzak argitzeko bulegoaren sorrera; erantzuna lehiakide guztiei bidaltzen zitzaien.*
3. *Proiektuaren aurkezpen publikoa, IVAPek antolatutako jardunaldi batzuetan. Aurkezpenaren bideoak YouTube eta blog batzuetan daude:*

http://www.youtube.com/watch?v=TwlpU_lZ1Ug&feature=related

<http://milenuno.blogspot.com/2010/05/fuente-irekia-gobierno-vasco.html>



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

O-sarean-en aurkezpena eta pilotuaren abiaraztearen aurkezpena Irekian argitaratua:

<http://www.irekia.euskadi.net/es/news/2366-nace-sarean-osakidetza-red-centro-servicios-salud-multicana>

Zenbait komunikabide sozialetan lehiaketarekin lotuta argitaratutako zenbait prentsa-ohar.

Ekimen horiekin guztiekin, gure ustez, erraztasun eta aukera guztiak eman dira lehiakideek gidaplanaren edukien berri izan zezaten”.

Garrantzitsua da adieraztea espedientean jasotako dokumentazioan ziurtatuta dagoela harreman elektronikoa egon zela enpresa lizitatzailerik baldintza-erri buruz egiten zituzten galderekin eta haien erantzunekin. Atxikita dago kontsulten kopia. 2. dok.

Horretaz guztiaz gainera, kontuan hartuta enpresa lizitatzailerik ez dutela lizitazioaren oinarrien kontra egin, ez eta behin-behineko eta behin betiko esleipenen kontra egin ere, ondoriozta daiteke interes-gatazka hori neutralizatu egin dela neurri horiek hartu direlako.

4. Zerbitzu-espediente batean, araudi harmonizatua aplikatu behar zaion kontratu bati dagokion prozedura saihestu da...

Alegaziorik ez.

5. Espediente bat eskaintza-aldiera bati esleitu zaio, nahiz eta baldintza-erri berariaz ezartzen duten lizitatzailerik eskaintza bakar bat aurkeztu behar dutela...

Alegaziorik ez.

6. 2010ean goi-zuzendaritzako bi kontratu egin ziren... eta kontratu horien sorrera ez du Osatek S.A.ren Administrazio Kontseiluak ez EAeko Gobernu Kontseiluak baimendu (130/1999 Dko 3. art.)

Aipatzen diren goi-zuzendaritzako bi kontratuak lanpostu bakarrari dagozkie, 2010ean bi pertsona aritu baitziren lan hartan. Gaur egun, enpresan ez dago lanpostu hori.

2009an helburu soziala aldatu zenean hasierako prestazioak zabaldu ziren, eta 2010eko lehen hiruhilekoan langile-kopurua handitzea eskatu zen; horretarako, justifikazio-txostena egin zen. Eskatu ziren lanpostu guztien artean lanpostu hori zegoen, IKTen zuzendaria, proiektua gauzatzeko nahitaezko langilea. Funtzio Publikoak aldeko txostena eman arren (2010eko apirilaren 6an), Ogasun Sailak ez zuen inolako txostenik eman; beraz, ezin izan zen



langile-kopuruaren hornidura handitu, eta lanpostua desagertu egin zen 2011ko abenduaren 31n.

Horregatik guztiagatik, Osatek S.A.ren Administrazio Kontseiluak ez zuen beharrezkotzat jo lanpostu horri zuzendaritzako izaera ematea, 130/1999 Dko 3. artikulua araberak, eta enpresaren zuzendaritzako lanpostu bakartzat zuzendari gerentearena hartzen da.

Horren ondorioz, aipatutako langileekin egindako kontratu-mota desegokia izango litzateke arazoa, eta ez Administrazio Kontseiluaren eta Gobernu Kontseiluaren baimenik eza.

Atxikita dago FUNTZIO PUBLIKOAREN TXOSTENA. 5. dok.

III. BARNEKO KONTROL-SISTEMEN ETA KUDEAKETA-PROZEDUREN GAINEKO GOGOETAK

II.4 OSATEK, S.A.

- *Esleitutako bi hornidura-espeditetan (1,9 milioi euro) ez dago baldintza teknikoen orririk (SPKLren 100. art.).*

Alegaziorik ez.

- *Ez da hornidurarik esleitu etorkizuneko konpromisoen egoerarako, eta 12,9 milioi euroan esleitutako zerbitzu-espedita batean 3 urteko egikaritze-epea aurreikusten da (SPKLren 93.3 art. eta Euskadiko Aurrekontu Araubidearen Testu Bateratuaren 55. art.).*

